

**Donostiako udalerriko ur
hornikuntzarako lehorre
egoeretarako larrialdi plana**

**Plan de emergencia ante
situaciones de sequía para
el abastecimiento de agua
del municipio de Donostia-
San Sebastián**



**Proiektuaren zuzendaria
Proiektuaren egilea**

**Fernando Perez Rodriguez
José Luis Badiola
2023ko martxoa**

**Director del Plan:
Autor del Plan:**

DONOSTIAKO UDALERRIKO UR HORNIKUNTZARAKO LEHORTE EGOERETARAKO LARRIALDI PLANA
AURKIBIDEA

1.- Sarrera.....	2
1.1.- Planaren aurrekariak eta oinarriak.....	2
1.1. Planaren helburuak.....	3
1.2. Lurralde esparrua.....	3
1.3. Arau eta erakunde esparrua.....	3
1.3.1.- Europako legeria.....	3
1.3.2.- Estatuko oinarrizko legeria.....	4
1.3.3.- Legeria osagarria.....	5
1.4.- Ingurumen ebaluazio estrategikoa.....	6
1.5.- Definizioak eta kontzeptuak.....	6
1.6.- Larrialdi Planaren eta alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren arteko lotura.....	7
1.7.- Larrialdi Planaren espezifikotasuna uraren goi hornidurarako.....	9
2.- Donostiako Udalaren hornidura sistemaren deskribapena.....	11
2.1.- Añarbeko Mankomunitatearen uren goi hornidura.....	11
2.2.- Donostiako Udalaren hornidura eremu espezifikoa.....	13
2.3.- Donostiako hornidura sistemaren azpiegiturak.....	13
3.- Baliabide hidrauliko erabilgarriak eta beharrak.....	18
3.1.- Gainazaleko biltegitratze baliabide nagusiak.....	18
3.2.- Donostiako Udalaren ur eskaria.....	19
4.- Klima aldaketari buruzko gogoetak.....	22
5.- Hornidura sistemak baldintza normaletan jardutea.....	23
6.- Eskasia koiunturaleko egoerak.....	25
6.1.- Hornidura sistemaren defizit koiunturala.....	25
6.2.- Eskasia koiunturaleko egoerak.....	26
7.- Eskasia koiunturaletan aurreikusitako jarduerak.....	30
8.- Planaren kudeaketa eta jarraipen erakundeak.....	38
9.- Planaren jarraipena egitea, berrikustea eta eguneratzea.....	39

1.- Sarrera

1.1.- Planaren aurrekariak eta oinarriak

Lehortea anomalia klimatologiko iragankor bat da. Lehorte garaietan, eremu geografiko batean eskura daitekeen ura eremu horretan ohikoa denaren azpitik egoten da. Era berean, eskuragarri dagoen ura ez da nahikoa leku horretan bizi diren landare, animalia eta gizakien beharrak asetzeko.

Lehorte ororen arrazoi nagusia euri jasarik edo prezipitaziorik eza da. Fenomeno horri lehorte meteorologikoa deitzen zaio, eta, luzez irauten badu, lehorte hidrolologikoa sortzen da, zeinaren ezaugarria baita ur eskaeren eta ur eskuragarritasun naturalen arteko desberdintasuna. Ezaugarri klimatiko errepikakorra da hori Iberiar penintsulan, baina ez hain ohikoa iparraldean; izan ere, penintsula iparraldean ez dute luzez irauten euri gabeko aldi horiek, ez behintzat ekosistemetan inpaktuak eragiteko eta ur eskaerak erabat artatzeko bidea arriskuan jartzeko adinako denboran —horrek ekarriko lituzkeen kalte sozioekonomikoekin—.

Fenomenoa inguruan dagoen giza eta industria erabilerarako ur eskariaren mailarekin lotuta badago, ur eskasiaz hitz egingo dugu.

Gizaki modernoa gai da lehortearen inpakturik handienak arintzeko. Gure egunotan ez badira garatzen lehorteak arintzeko estrategia egokiak, baliteke giza kostu oso handia eragitea. Izan ere, biztanleria dentsitate gero eta handiagoa ageri dute gaur egungo hiriguneek.

Administrazio publikoen eta ura kudeatzen duten erakundearen erantzukizuna da fenomeno horien hasiera edo gertutasuna detektatzeko eta lehortearen eta ur baliabidearen eskasia arintzeko hartu beharreko neurriak planifikatzea eta aurreikustea. Hori guztia Espainian baliabide hidrikoak kudeatzeko eta ingurumena babesteko dauden tresnen esparruan egin behar da (araugintzakoak eta plangintzakoak), baina kontuan hartu behar dira, orobat, autonomia erkidegoan eta Europar Batasuneko esparruan indarrean daudenak ere.

Plangintza hidrolologikoaren esparruan, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak *Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziak* berrikusi ditu, Uraren Esparru Zuzentarauaren bigarren zikloko mugapeetako plan hidrolologikoak onetsi ondoren.

Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziotan zehaztutako esparruarekin bat etorriz, eta Plan Hidrolologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen arabera (2005eko uztailaren 22an aldatua), hauxe jasotzen du lehorteak kudeatzeari buruzko 27. artikulua 3. apartatuak:

«Hiri hornidurako sistemen ardura duten herri administrazioek, betiere 20.000 biztanleri edo gehiagori arreta berezia edo mankomunatua ematen badiete, larrialdi plan bat eduki beharko dute lehorte egoeretarako. Plan horiek dagokion arako erakundeak edo administrazio hidraulikoak jakinaraziko ditu, eta kontuan hartu beharko dituzte plan berezietan aurreikusitako arauak eta neurriak (...).»

Hori horrela, lege xedapen hori betez idazten da **DONOSTIAKO UDALERRIKO UR HORNIKUNTZARAKO LEHORTE EGOERETARAKO LARRIALDI PLAN** hau.

Plangintza hidrolologikoa egiteko tresna gailenago gisa —eta horietan kokatzen da Larrialdi Plan hau—, aipatzekoak dira, alde batetik, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia, estatuari dagokion eskumen esparruan (azaroaren 28ko TEC/1399/2018 Aginduak onetsia), eta, bestetik, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrolologikoa, 2022-2027 zikloari dagokiona, urtarrilaren 24ko **35/2023 Errege Dekretuaren** bidez onetsia. Plan hori urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onetsitako 2016-2021 Plan Hidrolologikoaren berrikuspena da.

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoa definitzen duen **29/2011 Errege Dekretuan** ezarritakoaren arabera, Plan Hidrologiko hori bi eskumen eremutako plan hidrologikoen integrazio harmonikoaren bidez egin da. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eremua —barne arroak, Uraren Euskal Agentziak planifikatzen dituenak—, eta, bestetik, estatuaren eskumen eremua edo autonomia erkidego bat baino gehiago hartzen duten arroak —hots, Kantauriko Mugape Hidrografikoak planifikatzen dituenak—.

Aipatutako plangintza dokumentuak ez ezik, larrialdi plan hau idazteko oinarri gisa hartu dira *Hiri hornidurako sistemetan lehorte egoeretakako larrialdi planak egiteko gidan* jasotako irizpideak ere. Gida hori Ur Horniduren eta Saneamenduaren Espainiako Elkarteak idatzia da (AEAS, gaztelaniazko siglen arabera), eta aurrerantzean *AEASen gida* deituko diogu.

1.1. Planaren helburuak

Larrialdi Plan honen helburu orokorra da **herritarren osasuna eta bizitza bermatzeko behar den ur eskuragarritasuna bermatzea Donostiako hiri hornidurako sistemaren lurralde eremuan, eta, hala, ahalik eta gehien murriztea balizko lehorteek eta ur baliabideen urritasunak ingurumenean eta jarduera ekonomikoan izan ditzaketen ondorio negatiboak.**

Helburu orokor hori xede espezifiko hauetan banaka daiteke:

- Baliabide eskariei buruzko oinarrizko informazioa biltzea eta antolatzea, baita baliabideen eskuragarritasuna balioesteari buruzkoa ere.
- Hornidura sisteman ur baliabideen eskasia koiunturala izateko arrisku egoerak definitzea, izan arrisku horiek lehorteek lotuak ala ez.
- Eskasiak eragindako arrisku egoeretan sartzeko eta irteteko baldintzak eta adierazleak ezartzea.
- Eskaerak murrizteko, baliabideak indartzeko eta hornidura sistemak izan ditzakeen eskasia egoeretakako neurriak eta helburuak ezartzea.
- Lehorte egoeretan larrialdi planaren jarraipena egiteko, berrikusteko eta eguneratzeko mekanismoak edo prozedurak zehaztea.

1.2. Lurralde esparrua

Larrialdi plan honek Donostia udalerriko hiri hornidurako sistemari eragiten dio, zeina Donostiako Udalak kudeatzen baitu.

Gaur egun, sistema horren barruan sartzen da Donostia udalerriko erabiltzaileentzako hornidura, Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa).

2021eko urtarrileko erroldako datuen arabera, Donostiak 186.665 biztanle ditu, eta 60,9 km²-ko azalera.

1.3. Arau eta erakunde esparrua

Jarraian, lehorte egoeretakako larrialdi plana garatzerakoan kontuan hartu beharreko lege eta erakunde esparru orokorra aurkezten da. Orokorretik (Europako legeria) partikularra (estatuko eta autonomia erkidegoko legeria), zenbait ohar ematen dira, lehorte egoeretakako larrialdi planari buruzko araudian nabarmentzeko (AEASen gida).

1.3.1.- Europako legeria

Europako Batzordeak bi mailatan garatutako arau esparrua du, zuzentarauak eta komunikazioak, eta guztiak ere balia daitezke ur eskasia eta lehortek kudeatzeko.

Zuzentarauak

- 2000/60/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2000ko urriaren 23koa, ur politikaren esparruan jarduteko Erkidegoko esparrua ezartzen duena. Zuzentaru horretan, funtsezko aldaketa bat iradokitzen da lehortearen ikuspegi tradizionalan:
- Bereziki nabarmentzen ditu uraren kalitatea, ingurumen erabilgarritasuna eta erabileraren jasagarritasuna.
- Arroa ezartzen du oinarrizko kudeaketa unitate gisa, barnean harturik lurpeko, trantsizioko eta kostaldeko urak.
- Kudeaketa hidraulikoa gardenagoa izatea eskatzen du (hidrologia eta ingurumen datuak eskuratzea, ingurumen egoera zehazteko prozedurak normalizatzea, eta abar).
- Baztertu egiten ditu tarifak ezartzeko irizpide politikoak, eta kostuak osorik berreskuratzeko printzipioa sartzen du.
- Ur masen egoeraren aldi baterako narriadura ez da izango zuzentaruaren xedapenak ez betetzeko kausa, baldin eta ezohiko arrazoi naturalen edo ezinbesteko arrazoen ondorioz gertatzen bada edo arrazoi horiek ezin izan badira aurreikusi modu arrazoizkoan —bereziki lehorte luzeak—.
- Estatu kideak erabakiko du ea posible den edo ez neurri gehigarriak hartzea lehorte egoera zehatz bakoitzean.

Komunikazioak

- 414/2007 Jakinarazpena, Europako Batzordearena, uztailaren 18koa, Europar Batasunean ur eskasiaren eta lehortearen erronkari aurre egiteko moduari buruzkoa.

1.3.2.- Estatuko oinarrizko legeria

Espaniako legedian bi ikuspegi aurkezten dira: bata zuzentzailea, lehorte egoera dagoeneko egitate bihurtzen denean aplikatzen dena, eta bestea prebentiboa, lehorteen ondorioak agertu aurretik leuntzeko tresna juridiko eta arauemaileak ezartzen dituen (AEASen gida).

A. Neurri zuzentzaileei dagokienez, nabarmentzekoa da 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onesten duena. Hauxe dio lege horren 58. artikulua:

«Ezohiko lehortetan, akuiferoen gehiegizko ustiapen larriak gertatzean, edo ohiz kanpoko edo salbuespenezko egoerek eragindako premiak, larrialdiak edo aldibereko antzeko egoerak ageri direnean, Gobernuak, Ministro Kontseiluan erabakitako dekretu bidez, egoera horiek gainditzeko beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu, arroko erakundeari entzun ondoren, jabari publiko hidraulikoa erabiltzeari dagokionez, baita emakida kasuetan ere.»

Neurri horiek onesteak berekin dakar horiek garatzeko beharrezko obrak, zundaketak eta azterlanak onura publikokotzat jotzea, ondasunak eta eskubideak aldi baterako okupatu eta nahitaez desjabetzeko, eta berekin dakar, orobat, lehenbailehen okupatu beharrekotzat jotzea ere.»

Jakina, dagoeneko deklaraturako larrialdi egoera baten aurreko ikuspegi zuzentzailea da hori, zeina maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuarekin osatzen baita —errege dekretu horrek apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen du, jabari publiko hidraulikoaren erregelamendua onesten duena eta Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituenak—.

B. Bigarren ikuspegia prebentziozkoa da, plangintza batean oinarritua. Horretarako, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legea onetsi zen, zeinaren bidez lehortearen kudeaketa planifikatua egiteko oinarriak zehazten baitira.

Lege horrek ezartzen duenez, beharrezkoa da adierazle hidrologikoen sistema orokor bat ezartzea, egoera horiek aurreikusi ahal izateko eta aroko erakundeek erreferentzia orokor gisa baliatzeko alerta egoerak eta balizko lehorteak formalki deklaratzeko (27. artikulua).

Horretaz gainera, aroko organismoek eskatzen die egin ditzatela, dagozkien aroko plan hidrologikoen barruan, alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko plan bereziak, barnean harturik sistemak ustiatzeko arauak eta egoera horietan jabari publiko hidraulikoa erabiltzeari dagokionez aplikatu beharreko neurriak (27. artikulua, 2. apartatua).

Azkenik, 3. apartatuan ezartzen denez, 20.000 biztanle edo gehiagoko udalerrietarako hiri hornidurako sistemen ardura duten administrazio publikoek Larrialdi Plan bat izan behar dute lehorte egoerarako. Dagokion aroko erakundeak edo administrazio hidraulikoak jakinarazi behar ditu plan horiek, eta kontuan hartu behar dituzte, orobat, lehen aipaturako plan berezietan aurreikusitako arauak eta neurriak.

1.3.3.- Legeria osagarria

Lege esparrua osatzeko, badira zenbait dekretu eta arau, zuzenean edo zeharka lotuta daudenak eta/edo aurrekoetatik eratorriak: arroetako plan hidrologikoak, uren kalitateari buruzko araudia, toki araubideko xedapenak, eta abar.

Hauek hartu behar dira kontuan:

PLANGINTZA ETA KUDEAKETA

- a) MAM/698/2007 Agindua, martxoaren 21ekoa, alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko plan bereziak onesten dituenak, erkidego arteko arroetako plan hidrologikoen eremuetarako.
- b) 15/2005 Errege Lege Dekretua, abenduaren 16koa, ura aprobetxatzeko eskubideen transakzioak arautzeko premiazko neurriari buruzkoa.
- c) 8/2000 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa, lehorteak eta beste ezbehar klimatiko batzuek eragindako ondorioak arintzeko premiazko neurriak hartzeari buruzkoa —Diputatuen Kongresuaren 2000ko irailaren 12ko Ebazpenak baliozkotua—.
- d) Aroko Plan Hidrologikoa. 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, zenbait mugape hidrografikotako plan hidrologikoen berrikuspena onesten duena; horien artean dago Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatia, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako bigarren plangintza zikloari (2015-2021) dagokiona.
- e) TEC/1399/2018 Agindua, azaroaren 28koa, erkidego arteko arroen mugape hidrografikoei dagozkien lehorte plan berezien berrikuspena onesten duena; horien artean sartzen da Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren gaineko estatuaren eskumen eremua.
- f) Azkenik, atal honen barruan —nahiz eta ez arauemailea izan, zirriborro bat baita—, aipatzekoa da Uraren Zuzendaritza Nagusiak garaturiko Lehorte Plan Bereziak Idazteko Jarraibide Teknikoaren Zirriborroa, zeina hiru hilabetez jarri baitzen jendaurrean, 2017ko azaroaren 28tik 2018ko otsailaren 28ra

bitartean.

KALITATEA ETA INGURUMENA

- a) 140/2003 Errege Dekretua, otsailaren 7koa, giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun irizpideak ezartzen dituena.
- b) 1138/90 Errege Dekretua, irailaren 14koa, kontsumo publikoko edateko uren hornidura eta kalitatea kontrolatzeko araudi tekniko-sanitarioa onesten duena.
- c) 1988ko maiatzaren 11ko Agindua, 1994ko azaroaren 30eko Aginduak eta 1990eko urriaren 15eko Aginduak aldatua, lurrazaleko uren korranteetan mantendu behar diren oinarritzko ezaugarriei buruzkoa, edateko ura ekoizteko direnean.
- d) 1990eko urriaren 15eko Agindua, 1988ko maiatzaren 11ko Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez zehazten baitira edateko ura ekoizteko lurrazaleko korranteetan mantendu behar diren oinarritzko kalitate ezaugarriak.
- e) 1994ko azaroaren 30eko Agindua, 1988ko maiatzaren 11ko Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez zehazten baitira edateko ura ekoizteko lurrazaleko ur kontinentalen korranteetan mantendu behar diren oinarritzko kalitate ezaugarriak.
- f) 1988ko otsailaren 8ko Agindua, edateko ura ekoizteko erabiliko diren azaleko uren laginketak eta analisiak neurtzeko metodoei eta maiztasunari buruzkoa.

TOKI ARAUBIDEA

- a) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- b) 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duena.
- c) 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa onesten duena.

1.4.- Ingurumen ebaluazio estrategikoa

Euskadiko Gobernu Kontseiluak, 2022ko uztailaren 26ko azken bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia onestea erabaki zuen, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak proposatuta.

2022ko irailaren 26an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren **2022ko irailaren 16ko Ebazpena**, zeinaren bidez agintzen baita argitara dadila Gobernu Kontseiluaren 2022ko uztailaren 26ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia onesten duena.

Plan horren xedea da ahalik eta gehien murriztea balizko lehorteek ingurumenean ekonomian eta gizartean izan ditzaketen eraginak, eta Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera egina da.

Planak **adierazleen eta agertokien sistema bat ezartzen du, bai lehorteekin loturik, bai eskasia koianturala kontuan izanda**. Sistema hori funtsezko tresna da lehorteak kudeatzeko estrategien barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko barne arroen eremuan. Era berean, zenbait ekintza eta neurri zehazten ditu, lehorteek eta eskasia arazo koianturalek eragindako nahi gabeko inpaktuak arintzeko.

Donostiako Udalaren Lehorte Egoeretakako Larrialdi Plana, Alerta-egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziak adierazten duen bezala:

«Kudeaketa plan bat da, zeinak lehortearen eta ur eskasia koiunturalen inpaktuak arintzeko neurri espezifikoak proposatzen eta jasotzen baititu. Horri esker, ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak prebenitu eta zuzendu daitezke, uren erabilera jasangarria erraztearen bidez, baita une berezietan ere. Ez da inola ere proiektu berriak onartzeko esparrua, proiektu horiek ingurumen inpaktuaren ebaluazioa behar duten edo ez gorabehera».

1.5.- Definizioak eta kontzeptuak

Kontzeptuak definitzerakoan duten argitasunagatik, Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren ezarritako honako kontzeptu hauek sartzen dira:

- a) **Eskasia:** Ez izatea plan hidrológicoetan aurreikusitako ur eskaerei erantzuteko ur baliabiderik, aldeaz aurreko ingurumen murrizketak ziurtatu ondoren.
- b) **Eskasia estrukturala:** Etengabeko eskasia egoera, plan hidrológicoan aitortutako eskaerei erantzuteko berme irizpideak betetzea eragozten duena.
- c) **Eskasia koiunturala:** Eskasia egoera ez-jarraitua da, eta, dagokion plan hidrológicoan aitortutako eskaerei erantzuteko berme irizpideak betetzea ahalbidetzen badu ere, nabarmen mugatzen du hornidura behin-behinean.
- d) **Lehorte:** Aurreikusi ezin den fenomeno natural bat da, batez ere prezipitazio faltagatik gertatzen dena, eta, ondorioz, baliabide hidrikoak nabarmen murrizten dira aldi baterako (irailaren 10eko ARM/2656/2008 Aginduak onetsitako Plangintza Hidrológicoaren Jarraibidearen 62. definizioa).
- e) **Lehorte luzea:** Aparteko inguruabarrek eragindako lehortearen edo modu arrazoizkoan aurreikusi ezin izan dena. Egoera horiek identifikatzeko, prezipitazio faltarekin lotutako adierazleak erabiltzen dira denboraldi batean, intentsitatea eta iraupena kontuan hartuta (Plangintza Hidrológicoaren Jarraibidearen 63. definizioa).
- f) **Erreferentzia seriea:** Datu hidrológico edo meteorológicoen seriea, hilerokoa eta osoa, 1980ko urritik hasi eta 2012ko irailera bitartekoa; lehorte luzeen eta ur eskasiaren adierazleak definitzeko erabiltzen da. Aipatutako serie horri beste sei urteko datuak gehituko zaizkio, Lehorte Plan Bereziaren etorkizuneko eguneratzeekin.

Larrialdi Plan honetan, datu hidrológicoen eta ur kontsumoaren 40 urteko serie osoak erabili dira, hileko kontaketaekin, hasi 1977ko urritik eta 2017ko irailera arte —eta ez Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren 32 urteko seriea—, hornidura sistemaren errealitate hidrológica eta ustiapena ahalik eta hobekien ezaugarritzeko, Añarbeko urtegiko ustiatzean jasotako datuen ugaritasuna ahalik eta gehien aprobetxatuz.

- g) **Lurralde unitatea:** Lehorte Plan Bereziaren azterketa unitate bakoitzaren eremua. Lehorte luzeen ondorioetarako, Plan Hidrológicoaren baliabideen azterketako eremu eta azpieroekin lotuta egongo da, eta eskasiaren ondorioetarako, berriz, ustiapen sistemekin eta azpisistemekin.
- h) **Baliabide naturala:** Baliabide naturalak, Plan Bereziaren ondorioetarako, guztira igarotzen diren ur jariatzeen osatzen dituzte, bai lurrazalekoek, bai lurpekoek, betiere kontuan harturik giza ekintzak eraldatu gabeko erregimenean doazela. Kalkulua Arroko Plan Hidrológicoaren berrikuspen bakoitzaren bidez egiten eta eguneratzen da.

Definizio eta kontzeptu horiek, erreferentzia seriearen definizioan egiten den ñabardurarekin batera, aplikatzekoak dira mugape hidrográficoaren Plan Bereziaren eta Larrialdi Plan honetan.


1.6.- Larrialdi Planaren eta alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan

Bereziaren arteko lotura

Lurralde Unitatearen kontzeptuari dagokionez —lehen aipatu denaren arabera, lehorreak kudeatzeko azterketa unitate bat zehazten du—, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Alerta egoeretan eta balizko lehorreetan jarduteko Plan Bereziak bi eratako lurralde unitateak ezartzen ditu estatuaren eskumenen esparruan. Alde batetik, lehorre luzeak kudeatzeko lurralde unitateak definitzen dira, eta, bestetik, ur eskasietarako lurralde unitateak, ur gabezia koiunturala kudeatzeko.

Hornidura sistemaren Larrialdi Planari dagokionez, azken horietan jarri behar da arreta, hau da, ur eskasietarako lurralde unitateetan. Haietan, eremuari eragiten dioten baliabide hidrikoak eta unitate horretan dauden erabileren eskaeren kokapena jasotzen dira (plangintza hidrologikoaren eremuan ezarritako ustiapen sistemekin), bai eta garraio hidraulikoko azpiegiturak eta ingurumen murrizketei buruzko informazioa ere (emari ekologikoak).

Donostia udalerriko ur hornidura Añarbeko Uren Mankomunitatea udalaz gaindiko erakundearen mende dago. Erakunde horrek uraren goi hornidura bermatzen du, eta 03 Urumea ur eskasietarako lurralde unitatean dago, lehorre luzeak kudeatzeko 03 Urumea lurralde unitatearekin batera. Era berean, Urumea ibaiaren arro hidrografiko gehienarekin bat egiten du (Añarbe ibaia da haren ibaiadar nagusia), bokaletik gertu dagoen beheko zatia alde batera utzita (1. irudia). Ur eskasietarako lurralde unitate horrek 302 km²-ko azalera du guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko (Gipuzkoako Lurralde Historikoa) eta Nafarroako Foru Komunitateko eremu geografikoan.



1. irudia. Ur eskasietarako 03 Urumea lurralde unitatea (iturria: Alerta egoeretan eta balizko lehorreetan jarduteko Plan Berezia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, 2018ko ekaina).

Ur eskasietarako lurralde unitate horren eremuan, udalerriekin identifikatutako hiri eskaerako unitateak 2. taulan daude adierazita, baita eskatutako ur bolumena eta mugape hidrografikoaren Plan Hidrologikoan lortutako berme maila ere, zeinak Alerta egoeretan eta balizko lehorreetan jarduteko Plan Berezia egiteko erabili baitira.

2. taula. Ur eskasietarako 03 Urumea lurralde unitatearen hiri eskaerako unitateak. (Iturria: Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, 2018ko ekaina).

UTE	UNIDAD DE DEMANDA	Uso	VOLUMEN DEMANDADO (hm ³ /año)	Garantía volumétrica media (%)
3	UDU_Hernani	Urbana	1.66	100%
3	UDU_RestoAñarbe	Urbana	22.8	100%
3	UDU_UR_Karrika	Urbana	0.036	100%
3	UDU_UR_RestoOartzun	Urbana	1.37	100%
3	UDU_Urnieta	Urbana	1.2	100%
3	UDU_Usurbil	Urbana	1.176	100%

Añarbeko Uren Mankomunitateari dagozkio ur eskasietarako 03 Urumea lurralde unitate horren hornidura sistema nagusia eta hiriko eskari gehienak.

AEASen gidan adierazten den bezala, «*gomendagarria da (...), Plan Berezietan jasotzen diren eskasia egoera koiunturalak zehazten dituzten jarduketa eta atalase orokorrak kontuan hartuta ere, hornidura operadoreek hornidura sistema aztertzea eta haren atalaseak kalkulatzeko —aroko erakundeak egindako azterketatik aparte—, eta, hala, beharren arabera definitzea dagozkion eskasia egoerak. Hori guztia Larrialdi Planean sartuz; hartara, aplikatu beharreko kudeaketa neurriei dagokienez xehetasun gehiago lortu ahal izango ditu (...)*».

Irizpide horri jarraitu zaio Larrialdi Plan hau egiterakoan. Hori horrela, Añarbeko Uren Mankomunitatearen hornidura sistemaren berezko adierazleak eta atalaseak zehazten dira, dagozkien ataletan zehazten denaren arabera.

1.7.- Larrialdi Planaren espezifikotasuna uraren goi hornidurarako

Donostiako ur hornidurako sistema Añarbeko Uren Mankomunitatearen hornidura sistemaren mende dago zuzenean. Sistema hori uraren goi hornidurako sistema bat da, eta barnean hartzen ditu ura hartzea, giza kontsumorako tratatzea eta udal banaketako sarearen buruko deposituetan entregatzea; era berean, barnean hartzen ditu urak biltzeko, tratatzeko eta biltegi-tako azpiegituren artean garraiatzeko sistemak ere.

Donostiako Udalaren eskumena da ura banatzea, hasi Donostiako udal hornidurako sarearen goiburuko deposituetatik eta harik eta kontsumo puntuetaraino iritsi arte.

Lehorte egoerarako Larrialdi Plan honek duen garrantzia kontuan izanda, Añarbeko Mankomunitatearekin batera koordinaturik gauzatu da, kontuan izanik hura arduratzen dela Donostiako udal mugarte osorako ur baliabideak kudeatzeaz eta uren goi horniduraz.

Inguruabar horrek, era berean, badu ondorioz Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezian jasotako zenbait alderdirekin loturik, eta, bereziki, 20.000 biztanletik gorako herrietarako hiri hornidurako sistemetan lehorte egoerarako aurreikusitako larrialdi planekin. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Plan Hidrografikoaren Plan Bereziaren arabera eta betiere estatuaren eskumenen eremuan:

«(...) larrialdi planen oinarrizko edukiak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Planaren xede den hornidura sistemari aplikatu dakioken arau eta erakunde esparrua.*
- Larrialdi planaren xede den hirigunea edo hiriguneak hornitzen dituzten elementuak eta azpiegiturak identifikatzea eta deskribatzea.*
- Erabilgarri dauden baliabideak definitzea eta deskribatzea, dauden emakidei erreferentzia eginez, haien jatorria eta atzipen azpiegiturekin duten lotura, erabiltzeko baldintza orokorrak, eta haien*

eskuragarritasunaren balorazio estatistikoa, eskasia baldintzetan.

d) *Eskaerak definitzea eta deskribatzea, taldeka sailkatuta eta zenbatetsita (jardueraren, erabileraren eta urtarokotasunaren arabera), hornidurari, murrizketa neurriak aplikatzearekin duten portaerari eta abarri dagokienez ezaugarri homogeenak azaltzeko. Esplizituki hartuko dira kontuan kontrolatu gabeko erabilerak eta hornidura sistemaren azpiegiturretan izandako galerak.*

e) *Sistemaren eragiketa arauak eta hornidura esparruak baldintza normaletan.*

f) *Larrialdi planean kontuan hartutako eskasia egoera koiunturalak definitzea eta deskribatzea, horietako bakoitzean sartzeko eta irteteko baldintzak, barnean harturik aurreikusitako jardueren zerrenda eta horietan erantzukizunak esleitzea.*

g) *Eskasia egoera bakoitzerako arrisku handieneko eremuak eta egoerak identifikatzea eta aztertzea, eta arreta berezia jartzea biztanleriaren hornidura eta osasun arazoei eta jarduera estrategikoei, ikuspegi ekonomikotik zein sozialetik.*

h) *Larrialdi planak plan bereziarekin duen koherentzia aztertzea, bai larrialdi planaren eduki orokorrerako, bai aurreko ataletako bakoitzerako. Horietako batzuk bereziki garrantzitsuak dira bi planen arteko elkarrekotasun eta koordinazio egokia bermatzeko, eta behar bezala deskribatu behar dira Larrialdi Planean. Zehazki:*

- *Larrialdi Planean hartutako eskasia koiunturalen adierazleek, atalaseek eta agertokiek bat etorri behar dute ALERTA EGOERETAN ETA BALIZKO LEHORTEETAN JARDUTEKO PLAN BEREZIAN zehaztutakoekin.*

- *Larrialdi Planean planteatutako neurriek koherentzia gorde behar dute ALERTA EGOERETAN ETA BALIZKO LEHORTEETAN JARDUTEKO PLAN BEREZIAN zehaztutakoekin. Zehazki, Larrialdi Planak definituko ditu bai normaltasuneko guztizko eskariaren gaineko murrizketak, bai aintzat hartutako baliabide alternatiboak, egoeraren araberrako eskasia egoera desberdinetarako.*

- *Mugapeko Plan Hidrologikoaren eta ALERTA EGOERETAN ETA BALIZKO LEHORTEETAN JARDUTEKO PLAN BEREZIAN ingurumen baldintzatzaileen arteko koherentzia, batez ere eskasia egoerei dagokienez. Eskasiak ingurumenean dituen ondorioak arintzeko beharrezko jarduerak eta neurriak ezartzea, eta, bere betebeharrak eta eskumenen esparruan, ingurumen baldintza horiek betetzen direla ziurtatzea.*

Eskumenen, agertokien eta neurrien beharrezko koherentzia eta koordinazio horren ondorioz, garrantzitsua da hornikuntzez arduratzen diren administrazioek ALERTA EGOERETAN ETA BALIZKO LEHORTEETAN JARDUTEKO PLAN BEREZIAN egiten parte hartzea eta inplikatzeko, eta, bereziki, egoera bakoitzean hartu beharreko neurrietan».

Alerta egoeretan eta balizko lehorreetan jarduteko Plan Berezian zehaztutako edukien zerrendan, Donostiako ur hornidurarako lehorre egoeretarako Larrialdi Planaren kasuan, Añarbeko Uren Mankomunitateak lehorre egoeretarako egindako Larrialdi Planean ezarritako ondorioak aplikatuko ditugu.

2.- Donostiako Udalaren hornidura sistemaren deskribapena

Donostiako ur hornidura Añarbeko Uren Mankomunitatearen mende dago zuzenean.

Donostiako Udalak ez du eskumenik baliabide hidrikoak kudeatzeko —ez ura edangarri bihurtzeko, ez mankomunitatea osatzen duten udalerriak hornitzeko—, nola eta ez den Mankomunitateko Batzarraren gobernu organoan parte hartzearen bidez.

Hartara, balizko lehorte egoeren kudeaketa mankomunitatearen esku dago zuzenean, eta egoera horiek definitzea ez da Donostiako Udalaren eskumena.

Hori dela eta, kapitulu honetan aurkezten ditugu Añarbeko Uren Mankomunitateak idatzitako Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziak Donostiako ur hornidurari zuzenean eragiten dioten lehorte egoerak definitzeko ezarritako ondorioak.


2.1.- Añarbeko Mankomunitatearen uren goi hornidura

Añarbeko Uren Mankomunitatea 1968. urtean eratu zen. Urte hartan onetsi ziren haren estatutuak, uztailaren 27ko 2034/1968 Dekretuaren bidez (1968ko abuztuaren 17ko BOEn daude argitaratuta). Donostiako, Errenteriako, Hernaniko, Pasaiako, Lezoko, Oiartzungo, Urnietako eta Usurbilgo Udalek osatzen dute mankomunitatea, baita Lasarte-Oriako eta Astigarragako Udalek ere, udalerrri independente gisa eratu zirenetik aurrera. Haren helburua da Añarbe ibaiko urtegiko urak aprobetxatzea, onetsitako estatutuek eta ordenantzek zehaztutako araubideari jarraikiz.

Mankomunitatearen estatutuetan aurreikusitako helburuen artean, azpimarratzekoa da Añarbeko urtegiak araututako emarien aprobetxamendua, eta nabarmentzekoa da, orobat, urtegia bera, ubideak, tratamendu estazioa, adarrak eta biltegiak eraikitzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko eginkizuna ere, udalerrri mankomunitatei ura kantitate eta kalitate egokian eman ahal izateko. Udalerrri horiek, gaur egun, 315.551 biztanle biltzen dituzte guztira (2018ko urtarrileko errolda, Estatistikako Institutu Nazionala). Azken 20 urteetan, honela joan da aldatzen udalerrri horietako biztanleria:

Taula. Añarbeko Uren Mankomunitateak zerbitzatutako biztanleriaren bilakaera. (Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala).

Urtea	Biztanleak	Urtea	Biztanleak
1999	300.662	2009	309.814
2000	301.711	2010	310.446
2001	302.092	2011	311.613
2002	302.950	2012	312.176
2003	303.397	2013	312.583
2004	304.370	2014	312.846
2005	304.692	2015	313.324
2006	305.481	2016	313.975
2007	306.102	2017	314.776
2008	307.920	2018	315.551



2. irudia. Añarbeko Uren Mankomunitateak zerbitzatutako biztanleriaren bilakaera (1999-2018). (Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala).

Añarbeko Uren Mankomunitateak zerbitzatutako biztanleria honela banatzen da gaur egun (2018), udalerriz udalerriz:

4. taula. Añarbeko Uren Mankomunitateak gaur egun zerbitzatzen duen biztanleria, udalerriz udalerriz. (Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala, 2018ko urtarileko datuak).

Udal mugartea	Biztanleak	%
Errenterri	39.355	12,47
Hernani	20.222	6,41
Lasarte-Oria	18.253	5,78
Pasaia	16.128	5,11
Oiartzun	10.276	3,26
Astigarraga	6.272	1,99
Urnieta	6.170	1,96
Usurbil	6.165	1,95
Lezo	6.045	1,92
GUZTIR	315.551	100

Kontuan izanik Mankomunitatearen jarduerak denboraren poderioz, 1994ko azaroan Mankomunitatearen errenterriaren kudeaketan arintasan handiagoa lortze aldera, 1994ko azaroan Mankomunitatearen sozietate instrumental bat sortzeko prozesuari ekin zitzaion,

haren zerbitzuak kudeatzeko. 1995eko irailean amaitu zen prozesu hori, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietate publikoa eratu zenean (aurrerantzean, Añarbeko Urak SA). Sozietate horren akzioak Añarbeko Mankomunitatearenak dira erabat, eta 1996ko urtarrilaren 1ean ekin zion bere ibilbideari.

2.2.- Donostiako Udalaren hornidura eremu espezifikoak

Añarbeko sistema dei genezakeen hornidura dispositiboa Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren Presidentetzaren 1991ko abenduaren 13ko Ebazpenak aitorturiko emakida bidez dago aitorturik alderdi juridiko eta administratiboan («2.200 l/s-ko aprobetxamendua Añarbe ibaiko urtegian, Goizueta, Oiartzun eta Nafarroa eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan, ura hornitzea xede gisa harturik»).

Emakida hori Uren Erregistroan inskribatuta dago, Añarbeko Uren Mankomunitatearen izenean (A/31/1º0042 espedientea, A sekzioa, 053. orria, 0011. liburukia, 1053-A inskripzio zenbakia).

Aurrekoari 1.500 l/s-ko emakida bat gehitu behar zaio, zeina Añarbeko Urak SAren alde inskribatuta baitago. Emakida horren helburua Añarbe II zentralaren aprobetxamendu hidroelektrikoa bada ere (Añarbe ibaitik eratorritako ubide baten bidez hartzen ditu urak, izen bereko urtegitik gora), praktikan nabarmen sendotzen du Añarbeko sistemaren hornidura bermea; izan ere, beharrezkoa denean nahikoa izango da Añarbe II zentralaren funtzionamendua geldiaraztea Añarbe ibaitik zirkulatzen duten emari handiagoak ziurtatzeko —hau da, urtegiari baliabide gehiago emateko, azken buruan—.

Emakida hori Uren Erregistroan inskribatuta dago (H/31/2º0080 espedientea, A atala, 015. orria, 0104. liburukia, 10315-A inskripzio zenbakia).

Horri gehitu behar zaio Donostiako Udala 203 l/s hornitzeko emakida baten titularra dela Artikutzako urtegian, Añarbe ibaiaren arroaren goiko aldean. Hornidura hori gaur egun jada ez da egiten zuzenean Donostiako sistema zaharretik (Artikutzako urtegia, goi ubidea eta Txoritokieta). Izan ere, Artikutzako urtegiak ez du zerbitzu ematen gaur egun.

2.3.- Donostiako hornidura sistemaren azpiegiturak

Añarbeko presa Añarbe ibaiaren gainean eraikita dago —Urumea ibaiaren eskuinaldeko ibaiadarra—, Añarbe eta Urumea ibaiek bat egiten duten tokitik 600 bat metro gora, Arranbide izeneko inguruan.




Edateko ura tratatzeko Petritegiko estazioaren helburua da urtegiko ur gordina ur edangarri bihurtzea, eta haren kalitate parametroek indarrean dagoen legeria tekniko-sanitarioa betetzea.



7. irudia. Edateko ura tratatzeko Petritegiko estazioa.

Edateko ura tratatzeko estazioa Astigarragako Petritegi aldean dago, eta, handik, lau hodi abiatzen dira trataturiko ura udalerrri mankomunatuera bideratzeko, uraren goi hornidurako eskema honetan adierazten den bezala.

Jarraian, Añarbeko Uren Mankomunitateko hornidura sarea osatzen duten adarren irudia aurkezten dugu.



8. irudia. Edateko ura banatzeko Amarako depositua (ezkerraldean) eta Oriabentakoa (eskuinaldean), airetik ikusita. Donostia.

II. adarra: guztira 18.903 m luze da, eta adar horrek tratatutako urez hornitzen ditu edateko ura banatzeko Monseko depositua, edateko ura ponpatzeko Altzako estazioa, edateko ura banatzeko Kanpitxoko depositua, Alaberga, Darieta, Gamongoa eta Aranguren; adar nagusian 6.081 m luze da, eta hormigoizkoa da, txapazko alkandora eta galdategiarekin, eta 1.200 eta 600 mm arteko diametroa du.

Adar horretatik, edateko ura banatzeko Monseko depositua, edateko ura ponpatzeko Altzako estazioak eta edateko ura banatzeko Alabergako deposituak osatzen dute Donostiako banaketa sarearen goiburuko gordailu sistema.

Monseko depositua hormigoi armatuzkoa da, eta bi konpartimentu ditu, guztira 20.311 m³-ko bolumena hartzen du, 5,90 m-ko ur altueran.

Edateko ura banatzeko Alabergako depositua Errenteriako udalerrian dago, hormigoi armatuzkoa da, eta lau konpartimentu ditu, bi 2.600 m³-koak eta beste biak 1.290 m³-koak; guztiek 6,80 m-ko ur-altuera dute, eta Pasaia, Lezo eta Errenteriara eramaten dute ura.

III. adarra: adar horrek 22.158 metroko luzera du guztira, eta zuzenean hornitzen du edateko ura banatzeko Orkolagako depositua, eta zeharka Astigarraga, Belartza, Lasarte Oria, Larbain, Urnieta eta Pardiolako sistema, dagozkien azpiadarrak baliatuz.

Adar horretatik, edateko ura banatzeko Belartzako depositua da Donostiako banaketa sarearen goiburuko gordailu sistemaren parte den bakarra.

Belartzako azpiadarra Lasarte eta Usurbilgo azpiadarretik abiatzen da. Galdaketa harikorreko eroanbidea da, 1.693 m da luzean eta 300 mm-ko diametroa du. Sistema hori edateko ura ponpatzeko Errekaldeko estazioak eta edateko ura banatzeko Belartzako deposituak osatzen dute.

Edateko ura banatzeko Belartzako depositua hormigoi armatuzkoa da, eta bi konpartimentu ditu, guztira 5.607 m³ hartzen dituzte, 4,00 metroko ur altueran. Sistema horrek Belartza inguruko eta Lasarte-Oriako goiko auzoetako hirigintza garapen berriak hornitzen ditu.

IV. adarra: adar horrek 6.485 metroko luzera du guztira, eta edateko ura banatzeko Putzueta, Abrin, Sabara eta San Markoseko deposituak hornitzen ditu. Edateko ura ponpatzeko Petritegiko estaziotik elikatzen dira, zeina edateko ura tratatzeko estazioan bertan baitago.

Adar horretatik, edateko ura banatzeko Putzuetako eta Abrineko deposituak dira Donostiako banaketa sarearen goiburuko gordailu sistemaren parte.

Edateko ura banatzeko Putzuetako depositua Astigarraga udalerrian dago, hormigoi armatuzko sekzio angeluzuzenekoa da, eta 2006. urtean handitu zuten, biltegitratze edukiera handiagoa emateko. Gaur egun bi konpartimentu ditu, eta berrienak aurrekoaren edukieraren erdia du. Guztira 24.032 m³-ko bolumena dute, 5,15 m-ko ur garaieran.

Biltegi horretatik, Altza auzora banatzen da ura, baina badago edateko ura banatzeko Abrineko deposituraino eramaten duen beste hodi bat ere. Hodi hori hormigoizkoa da, eta 1.000 mm-ko diametroko txapazko alkandora du lehen zatian (414 m), eta 500 mm-ko diametroko galdaketa harikorra biltegituraino. Tarte horrek 1.546 m-ko luzera du.

Edateko ura banatzeko Abringo deposituak, zeina Donostian baitago, hormigoi armatuzko sekzio angeluzuzena du, eta bi konpartimentuk osatzen dute. Konpartimentu horien bolumena, guztira, 9.582 m³-koa da, eta 7,68 m-ko ur-altuera du. Giltzen ganberan dagoen edateko ura ponpatzeko estazioaren bidez (30 kW-eko potentzia eta 45 l/s-ko emaria duten bi ekipoz osatuta dago), 150 mm-ko diametroa eta 1.800 m-ko diametroa duen galdaketa harikorreko hodi batek bultzatzen du edateko ura banatzeko Sabarako depositura.

3.- Baliabide hidrauliko erabilgarriak eta beharrak


Baliabide hidrikoak, normala denez, Añarbeko Uren Mankomunitateak eskura dauzkanak eta kudeatzen dituenak dira.

3.1.- Gainazaleko biltegitratze baliabide nagusiak

Añarbeko Uren Mankomunitateko hornidura sisteman erabiltzeko dauden baliabide hidrauliko guztiak Añarbe ibaiaren ekarpenetatik datoz, eta Añarbeko urtegiari biltzen eta erregulatzen dira.

Baliabide horiek ura banatzeko sistemarekiko mendekotasun osoa dutenez, Añarbeko Mankomunitateak bere planean lehorte egoeren ondoriozko Larrialdi Planaren abiapuntuko datuak zehazten ditugu.

Lehorte egoerarako Añarbeko Larrialdi Plana egitean, grafikoki adierazten dira Añarbeko urtegiari egindako hileko ekarpenen batez besteko, gehieneko eta gutxieneko datuak, betiere lehen aipatutako aldirako (1977-78 eta 2016-17).



Urteko batez besteko ekarpena 108,7 hm³/urte da —gehienez 170,6 hm³/urte (2012-13) eta gutxienez 65,9 hm³/urte (1988-89)—.

Urtegira egindako ekarpen horietatik abiatuta erabilgarri dauden baliabideak lortzeko, nahikoa da mugape hidrografikoaren Plan Hidrologikoan ezarritako emari ekologikorako gordetako bolumena hilabete bakoitzean deskontatzea, emari ekologikoa ez baita hartu behar beste eskari bat bezala, gainerako ur eskariekiko lehian, baizik eta baliabidearen erabilgarritasunaren aurreko murrizketa gisa.

10. taula. Añarbeko urtegiaren erabilgarri dauden baliabide hidraulikoak.

AÑARBEKO URTEGIAREN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDE HIDRAULIKOAK, EMARI EKOLOGIKOA DESKONTATUTA													
	urria	azaroa	abuztua	urtarri	otsaila	martxo	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	Guztira urtea
Batezbestekoa	5.053.253	9.887.087	10.883.184	12.412.778	12.259.637	10.650.979	10.198.998	8.370.750	4.548.863	3.307.636	3.026.596	2.529.525	93.129.286
Maximoa	33.628.020	24.074.877	25.253.749	35.409.223	39.155.549	29.253.502	28.715.727	20.600.466	20.349.305	12.362.303	16.995.025	7.201.234	154.993.242
Minimoa	904.572	2.028.423	1.042.248	2.795.820	2.953.734	2.723.573	2.271.210	2.590.789	1.435.823	892.181	1471.627	781.869	50.340.276

Beraz, **urtegiaren eskuragarri dauden baliabideen urteko batezbestekoa 93,1 hm³ da urteko.**

Añarbeko Uren Mankomunitateko uraren goi hornidurako sisteman ez dago lurpeko baliabide erabilgarririk.


Añarbeko Uren Mankomunitateko uraren goi hornidura sisteman, orobat, ez dago bestelako baliabide hidraulikorik.

3.2.- Donostiako Udalaren ur eskaria

Donostiako Udalak kudeatzen du behe hornidurako banaketa sarean, zeinak barnean hartzen baitu abonatuaren kudeaketa ere.

Añarbeko Urak SAK neurtzen du goi hornidurako ura, eta Añarbeko Urak SAK berak fakturatzen ditu hornitutako bolumenak Donostiako Udalaren sareko banaketa gordailuen irteeran; horixe da, hain justu, goi eta behe horniduretako mugako puntua. Horrek esan nahi du Añarbeko Mankomunitateari dagokiola biltegien egoera onari eustea.

Hurrengo grafikoan, Añarbeko Uren Mankomunitateak 2007-2022 aldian Donostian ura banatzeko emandako urteko bolumen osoaren bilakaera adierazten da.



Añarbeko urtegitik emandako urteko bolumenak.

Ikus daitekeenez, Donostia udalerriko ur kontsumoaren bilakaera pixkanaka murrizten joan da, banaketa sarean ur galerak murrizteko planari esker, zeina 2010etik aurrera ezarri baitzuen Donostiako Udalak.

Udalak ahalegin handia egin du banaketa sarean ur galerak murrizteko, eta horrek asko laguntzen dio Añarbeko Uren Mankomunitateari Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako Zatik Plan Hidrologikoan (2015-2021 berrikuspena) ezarritako helburuak betetzeko gaitasunean, bai eta Emari Ekologikoen Araubidea Ezartzeko Programa Espezifikoa garatzeko balantzeak eguneratzean ere. Programa horretan, Añarbeko urtegiak hornitzen dituen hiri eskaerako unitateetarako hiri eskaeraren bolumena ezartzen da Añarbeko urtegitik hornitzen diren unitateetarako: 28,246 hm³/urte (2021eko horizontea) eta 28,118 hm³/urte (2027ko eta 2033ko horizontea). Hau da, Donostiako udalerriko ur kontsumoa murrizteak Añarberi ematen dion autonomia oso nabarmena da planean eskatzen den hiri eskariaren bilakaeraren aurreikuspenetarako, zeinak ia egonkorra jarraituko baitu.

Taula honetan adierazten da Donostiako Udalak urtean kontsumitzen duen ur kantitate gordinaren bilakaera.


	2010. URTEA	2011. URTEA	2012. URTEA	2013. URTEA	2014. URTEA	2015. URTEA	2016. URTEA	2017. URTEA	2018. URTEA	2019. URTEA	2020. URTEA	2021. URTEA	2022. URTEA
KONTSUMOA	16.066.442	15.330.478	15.026.448	14.362.743	14.292.188	14.358.029	14.093.876	14.052.654	14.047.260	14.197.012	14.472.399	14.203.131	14.068.421
l/biztanle x egun	237	226	221	211	210	211	207	207	206	208	211	207	205
Errendimendua	% 83	% 85	% 86	% 87,9	% 88,2	% 86,4	% 89,7	% 90,0	% 88,6	% 87,9	% 86,8	% 88,5	% 88,9

Argi eta garbi, **egun eta biztanleko 205 litroko** urteko kontsumo gordin horrek aurrerapen diferentziala adierazten du Añarbeko Planean helburutzat ezarritako adierazlearentzat; hau da, **239 litro biztanleko eta eguneko**.


Ura banatzeko sistemaren galerak kalkulatzeko, banaketa deposituaren irteeran Donostiako Udalari zerbitzaturiko bolumenak neurtzen dira.

Aurreko taulan, Donostiako Udalak kudeatzen duen uraren banaketa sareko 13 urte naturalen (2010-2022) errendimendu teknikoari buruzko datu errealak jasotzen dira.

Azkenik, hornidura sistemako ur eskariaren ezaugarriak zehazten amaitzeko, eta Donostiako Udalaren abonatuaren kudeaketa sistemaren datuak hartuta, hiri eskariak 2010. eta 2022. urteen artean izan duen bilakaerak erakusten du murriztu egin dela ur kontsumoa Donostian. Horrek esan nahi du Donostiako Udalak lan handia egin duela azken urteotan uraren erabilera jasangarriari buruz kontzientziazteko, bai eta udal kontsumoak kontrolatzeko ere.



2010etik 2022ra bitartean Donostian kontsumitzaile motaren arabera erregistratutako kontsumoen banaketa beharrezko oinarria da, jakin ahal izateko zein kontsumo kantitate murriztu daitekeen erabilera motaren arabera lehortekak eragindako alerta edo larrialdi kasu bakoitzean.



Hona hemen 2022ko Donostiako kontsumoen banaketa, ehunekotan:

IZENA	
Kontagailuetan neurtutako kontsumoak	%
Industriako abonatuak	% 21,92
Etxeetako abonatuak	% 73,52
Erakunde abonatuak (fakturatuak)	% 2,33
Udal abonatuak	% 2,24

4.- Klima aldaketari buruzko gogoetak

Atal honetan, batez ere, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezian klima aldaketari buruz egindako gogoetak aipatuko dira (betiere estatuaren eskumenen esparruan).

Aipatutako dokumentuan klima aldaketari buruz adierazitakotik, hauxe nabarmendu behar da:

«(...) Lehorteak kudeatzeko plan bat planteatzerakoan, egokia da klima aldaketaren ondorioei buruz eskura ditugun emaitzak kontuan hartzea, bai ekarpen naturalen murrizketari dagokionez, bai beste ondorio batzuei dagokionez, hala nola muturreko fenomeno klimatikoen maiztasun handiagoa, itsas mailaren igoera eta lurraldearen desertifikazioa. Lehorte Plan Berezian honetan kontuan hartu da, bereziki, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak balizko egoerei buruz jasotakoa, eta aintzat hartu dira, orobat, CEDEXen Azterketa Hidrografikoen Zentroak 2012an eta berriki 2017an egindako azterlanen ondorioak.

(...)

Spainian, oro har, aurreikusten da murriztu egingo direla baliabide hidrikoak XXI. mendeak aurrera egin ahala, eta aldatu egingo dela lehorte hidrokologikoen erregimena; etorkizunean, proiektio klimatiko gehien arabera, ohikoagoak izango dira lehorteak, eta inpaktu hori gero eta handiagoa izango da XXI. mendean aurrera egin ahala (Azterketa Hidrografikoen Zentroa, 2017)».

Larrialdi Plan honetako urritasun adierazlearen definizioa ur baliabideen eta kontsumoen erregistro historikoen azterketan oinarritzen da (kasu honetan, 1977-78 eta 2016-17 bitarteko urte hidrokologikoen denbora seriean). Bestalde, beharrezkoa da Larrialdi Planaren jarraipena eta aldizkako berrikuspena egitea lehorte egoeretan, eta gutxienez sei urtean behin berrikustea —edo arrok Plan Hidrokologikoan edo dagokion Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezian funtsezko aldaketak egiten direnean, behinik behin—. Beraz, eta Plan Berezian bertan ere adierazten den bezala, «*sistemak aldian-aldian integratzen du erregistratzen ari den bilakaera klimatikoa, eta, horrekin batera, kontuan hartzen ditu diagnostikoetarako erabiltzen diren aldagaietan nabaritu diren aldaketa klimatikoaren ondorioak ere*».

Beraz, lehorte egoeretan Larrialdi Planaren jarraipena eta berrikuspena egiteko prozesuek eta aldagai hidrokologiko eta klimatologikoen etengabeko erregistroak eta jarraipenak bermatzen dute Larrialdi Plana egokitzen dela klima aldaketaren unean uneko errealitatera.


Bestalde, kontuan hartu behar da, orobat, lehorte egoeretak Larrialdi Plan honetan gutxieneko ekarpenen hipotesi kontserbadore bat jaso dela, eskura dagoen serie historikoen urteko gutxieneko ekarpenak baino askoz ere zorrotzagoa. Hori dela eta, pentsatzekoa da klima aldaketaren ondoriozko ekarpenen etorkizuneko murrizketa kontuan hartuta dagoela Larrialdi Plan honetan.

5.- Hornidura sistemak baldintza normaletan jardutea

Añarbeko urtegia da Añarbeko Uren Mankomunitatearen goi hornidurako sistemaren iturri bakarra, eta urtegi horrek erregulatzen ditu Añarbe ibaiaren emariak.

Donostiako Udalak, gaur egun, ura hornitzeko 12 depositu ditu udal mugartean bizi diren 187.849 biztanleentzat. Hornidura hori 465 km hodi eta 13.193 hargune dituen sare baten bidez gauzatzen da. Banaketa sare hori, funtsean, 80 mm-tik 900 mm-ra bitarteko diametro aldakorra duten galdaketa hodiekin osatzen dute.


Donostiako sarean 2007an ezarritako sektorizazio sistemarekin, Donostiako Udalak egunero-egunero eskuratzen ditu aurreko egunean sektore bakoitzean zeuden emarien ordu neurketak; hori horrela, azter ditzake jasotako datuak, 68 sektoreetako bakoitzean eta egun bakoitzean izandako ur galerak baloratzeko.



Kudeaketa berri horren oinarritzko tresna Donostiako Udalak egindako edateko uraren banaketa sarearen sektorizazioa da; beraz, sare hori optimizatzea da helburu nagusia, eta bateragarri egitea martxan dauden beste kudeaketa arlo batzuekin.

Sektorizazioaz baliatuz, kudeaketa funtsezko bi alderditan bateratzea planteatzen da: batetik, sarean injektatutako edo Añarbek hornitutako bolumenen kontrola eta, bestetik, abonatuak erregistratutako edo fakturatutako bolumenen kontrola.

Hurrengo grafikoan, bi bolumenek azken urteetan izan duten bilakaera ikus daiteke.



Txertaturiko ura Erregistraturiko ura

Aurkeztutako grafikoaren azterketatik, bi ondorio ateratzen dira:

- Murriztu egin da sarean injektatutako bolumena edo Añarbek hornitutakoa.
- Mantendu egin da erregistratutako bolumena edo abonatuak fakturatutakoa.

Injektatutako bolumenaren gutxitze horrek sarearen errendimendua handitzea ekarri du. Bolumenaren murrizketa hori 2009., 2010. eta 2011. urteetan edateko ura banatzeko sarea kudeatzeko plana gauzatzearen ondorioz gertatu da batez ere, murriztu egin baitira banaketa sarean ihesen ondoriozko ur galerak, eta horrek egonkortu egin du sareko uraren kontsumoa hurrengo urteetan, gaur egunera arte.

Lan ildo horri eustea eta abonatuak ur kontsumoaren kudeaketan eta murrizketan emaitzak hobetzea da Donostiako Udalak 2023an uraren alorreko Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoari aurkeztutako planen helburua.

Donostiak uraren zikloa digitalizatzeko Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoari aurkeztutako proiektuan (DigiUraSS), Udalak aurreikusi du etorkizuneko egoerei aurre egitea, eta tresna teknologikoak aurreikusten ditu funtzionamendua aztertzeko, ura banatzeko sareko eragiketa optimizatzeko, sarean eta erabiltzaileetan justifikatu gabeko kontsumo gehikuntzen alarmak detektatzeko eta abarretarako.

Hona hemen DigiUraSS proiektuan sartutako neurriak:

- Banakako kontsumoak kontrolatzeko sentzore digitalak ezartzea. Horri esker, azkarrago eta modu eraginkorragoan aurkitu ahal izango da edozein gorabehera, bai banaketa sareetan, bai instalazio partikularretan, sektore bakoitzeko eguneroko balantze hidrikoei esker.
- Gehiegizko edo desegokitzat jotako kontsumoak saihesteko edo murrizteko tarifa politika progresiboak ezartzea.
- Herritarrak eta industria sektorea kontzientziatzeko kanpainak, uraren baliabide naturalaren erabilera jasangarria izan dadin.

Horrek guztiak Donostiako banaketa sareko ur kontsumoaren % 10etik gorako aurrezpena ekarriko du, zeinak aise estaltzen baitu aurrealera egoera. Donostiako Udalak kudeatzen duen banaketa sareko ur eskaria 205 litro da biztanleko eta eguneko, askoz txikiagoa Añarbek lehorte egoerarako idatzitako Larrialdi Planak eskatzen duen biztanle eskariaren atalasea baino.

6.- Eskasia koiunturaleko egoerak

6.1.- Hornidura sistemaren defizit koiunturala

Donostia udalerrian ura banatzeko izan daitezkeen eskasia egoera koiunturalak definitu aurretik, atal honetan kontuan izan behar dugu Añarbeko Uren Mankomunitatearen hornidura sisteman gerta daitezkeen defizit egoerak; hau da, udalerrian ura hornitzeko gerta daitezkeen eskasia egoerak.

Añarbeko Uren Mankomunitateak lehorre egoerarako Larrialdi Plan bat egin du. Plan horretan, ur defiziten aldiak eta bolumenak zehaztu dira, **Añarbe ibaiaren ekarpen garbien (emari ekologikoa kenduta) eta ur eskariaren bolumenaren arteko balantzea kontuan hartuta, eta betiere Añarbeko urtegiaren erregulazioa aintzakotzat hartu gabe.**

Lorturiko defizit maximoak gutxienez izan beharko litzatekeen urtegi bolumenaren balio bera du, dena delako defizitaldiaren hasierarako eta defizit egoera hori ezabatzeko (bolumen horri dagokion aldiaren aurreikusitako lurrunte galeren bolumena gehitu beharko litzaioke).

Nabarmendu behar da ez dagoela defizitik Añarbek aztertutako aldi historikoetan, zeinak urtarrilean, otsailean edo martxoan hasten baitira. Urteko gainerako hilabeteetan hasten diren gutxienerako ekarpenen aldietan, ordea, gertatzen dira defizitak, eta **gehieneko defizit metatuaren balioa 5,90 hm³-koa da, ekainean hasten den gutxienerako ekarpenen aldi baterako, 4 edo 7 hilabeteko iraupenarekin (biek ia defizit bera sortzen dute).**

Horniduran defizita sortzen duen gutxienerako ekarpenen aldirik luzeena 8 hilabetekoa da —kasu horretan ere, ekainean hasita—. Epe luzeagoetarako, sistema modu naturalean berreskuratzen da beti, eta horrek berresten du gerta daitezkeen defizit horiek koiunturalak direla, eta ez estrukturalak; hori horrela, agerian geratzen da Añarbeko Uren Mankomunitatearen **hornidura sistemaren sendotasun handia.**

6.2.- Eskasia koiunturaleko egoerak

Atal honetan, eskasia egoera koiunturalak deskribatzen dira, bai eta horietako bakoitzean sartzeko eta egoera horietatik irteteko adierazleak eta baldintzak ere.

Agertoki horiek Añarbeko Uren Mankomunitateak egindako Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezian daude definituta, eta Donostiako Udalerako lehorte egoeren kudeaketa zuzentzen dutenak izan behar dute.

6.2.1.- Eskasia egoera koiunturalak definitzea eta deskribatzea

Eskasia koiunturala eskaerei erantzutean izaniko aldi baterako arazotzat hartu behar da. Eskasia koiuntural horren kausa, normalean, lehorteia izan ohi da. Dena den, azaleratu daitezke beste arrazoi batzuk ere, hala nola azpiegituren eragiketan matxurek edo arazo espezifikoek eragindakoak, denbora jakin batean hornidurak zailtzen baitituzte.

Eskasia koiunturalaren agertokiek ur eskariari erantzun ezin izateko arriskua sorrarazten duten egoerak irudikatu behar dituzte. Egoera horiek, pixkanaka-pixkanaka, arrisku maila desberdinak adierazten dituzte, larritasun txikienetik handienera, eta hainbat neurri jarri behar dira praktikan, horri lotutako ondorio negatiboak atzeratzeko edo arintzeko. Larrialdi Plan honen ondorioetarako, egoera hauek definitzen dira, eskasia koiunturala gertatzeko arriskuari dagokionez:

- **Normaltasun egoera** (urritasunik eza). Ez da deklaratu eskasia koiunturala izateko arrisku egoerarik. Ez da beharrezkoa neurri koiunturalak hartzea.
- **Alerta aurreko egoera** (eskasia moderatua). Ur eskaerari erantzun ezinik geratzeko arrisku moderatua ageri da, eta epe labur edo ertainera (urtebete edo epe laburragera) hurrengo agertokira (alerta) igarotzeko aukera dago, ekarpenak oso urriak badira. Egoera larriagotzeko arriskua ageri denean, eskariaren kontrol koiunturala egiteko eta aurrezteko neurriak aplikatu ahal izango dira.
- **Alerta egoera** (eskasia handia). Ur eskaerari erantzun ezinik geratzeko arrisku handia ageri da, eta epe labur edo ertainera (urtebete edo epe laburragera) hurrengo agertokira (larrialdia) igarotzeko aukera dago, ekarpenak oso urriak badira. Aurreko fasean hasitako aurrezteko eta eskaria kontrolatzeko neurriak areagotuko dira.
- **Larrialdi egoera** (eskasia larria). Ur eskaerari erantzun ezinik geratzeko arrisku larria eta berehalakoa ageri da (2 hilabeteko edo gutxiagoko epea). Aurretik aipaturiko neurri egokiez gainera, aplikatu daitezkeen salbuespenezko eta ezohiko neurriak ere hartu ahal izango dira.

6.2.2.- Eskasia egoera koiunturalaren adierazlea

Definitu beharreko adierazleak arrisku egoeraren adierazgarri izan behar du, eta hornidura sistemaren kudeaketaren arduradunek erabiliko dute eskasia egoera koiunturalak formalki deklaratzeko, bai eta horren ondorioak arinduko dituzten neurri kidetuak aplikatzeko ere.

Adierazleak sistemaren eskasia ezaugarritzeko gai izan beharko du, eta modu objektiboan islatu beharko du epe labur eta ertainerako baliabideen eskuragarritasuna, baliabide arruntak hornitzeko iturri nagusiaren adierazgarri izanik (AEASen gida).

Añarbeko Uren Mankomunitateko hornidura sistemaren kasuan, zalantzarik gabe, urtegian biltegitratutako ur bolumena da adierazle egokia, hori baita, egiaz, sistemako ur iturri bakarra.

Horretaz gainera, urtegian biltegitratutako ur bolumenak inplizituki jasotzen du Añarbe ibaiaren ekarpenei buruzko informazioa. Aurreko 7.1 atalean (Hornidura sistemaren defizit koiunturala) ikusi denez, Añarbe ibaiaren ekarpenak hornidura iturri sendoak dira, eta, beraz, erregistro historikoetan oinarrituta, defizit koiunturalak ez du inoiz gaintzen 8 hilabeteko iraupena. Hala, modu naturalean berreskuratzen da ekarpenen eta eskarien arteko balantze positiboa. Hori horrela, ekarpenak balio «normaletan» kokatzen diren heinean, azkar handituko da urtegian biltegitratutako ur bolumena, eta, ondorioz, inplizituki islatuko da normaltasun maila edo, kasuak hala agintzen duenean, ekarpenen eskasia, Larrialdi Plan honetan aurreikusitako ur eskari ia egonkorraren aurrean.

Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen esplizituki kontuan hartzea Añarbe ibaiaren ekarpenekin zuzenean lotutako adierazle gehigarriak (ekarpenak, prezipitazioa, eta abar).

Hautatutako adierazlerako (Añarbeko urtegiako ur bolumena) eskasia egoeren arteko mugei dagozkien hileko atalaseak kalkulatu dira, AEASen gidan proposatutako metodologiari jarraituz. Hona hemen, laburbilduta, kasu honetarako egokitzapena:

- Hasteko, **larrialdi egoeran** sartzeari dagokion atalasea zehazten da. Urteko hilabete bakoitzerako, gutxieneko kalkulu ekarpenekin batera **bi hilabeteko hornidura** bermatzeko behar den gutxieneko urtegi bolumena kalkulatu da (egoera horri dagokion murrizketa mailarekin). Ez da kontuan hartzen beheko hargunearen azpiko urtegi bolumena, zeina **larrialdiko erreserba bolumentzat** hartzen baita.
- Beste bi agertokietarako urtegiaren bolumen atalaseak kalkulatzeko, berriz, urteko hilabete bakoitzerako —agertoki bakoitzari dagozkion gutxieneko kalkulu ekarpenekin eta ur eskariaren murrizketekin— **12 hilabeteren buruan igaro behar da goiko egoeratik hurrena beherantz duen agertokira**. Kalkulua, beraz, **alerta egoerako** hileko atalaseetarako hasten da, larrialdi egoerarako aldeztu aurretik kalkulatuak atalaseetatik abiatuta, eta, azkenik, **aurrealerta egoeraren** hileko atalaseak kalkulatu dira, lehendik ezagutzen diren alerta atalaseetatik abiatuta.

Eskasia koiunturalaren adierazlearen atalaseak kalkulatzeko datuak, berriz, hauek dira:

AÑARBEKO URTEGIAREN DATU NABARMENAK

Erantsitako taulan, Añarbeko urtegiaren kota eta bolumen nabarmenen datu nagusiak ageri dira.

Izendapena	Kotabolumena (hm ³)	Bolumen erabilgarri partziala (hm ³)	Oharrak	
Urtegi hila	100	0,120	0,120	Aprobetxatu ezin den urtegiaren bolumena, hondoko hustubideetatik atera ezin dena
Larrialdietara koerreserba bolumena	111	1,430	1,310	Ezin da atera hornidura harguneetatik, baina bai hondoko hustubideetatik, eta, ondoren, ponpaketa egin behar da Arranbideko estazioan (Urumea ibaia) beheko kanalera
Erregulaziobolumena	156	37,280	35,850	Urtegiaren bolumena ur harguneen eta gainezkabidearen atalasearen artean

HILEKO GUTXIENEO KALKULU EKARPENAK

Kalkulurako gutxieneko ekarpen gisa, **urte oso txar bat** hartu da, serie historiko osoko hileko gutxieneko balioetatik abiatuta; era berean, hilabete bakoitzeko gutxieneko balioa hartu da, nahiz eta gutxieneko horiek ez diren erregistratu urte hidrologiko berean.

30. taula. Eskasia egoeren atalaseak kalkulatzeko hileko gutxieneko ekarpen erabilgarriak.

URTEBETEKO EKARPEN OSO TXARRA, HILEKO GUTXIENEO BALIOETAN OINARRITUTA (azaroan eta maiatzean, inguruko hilabeteetan tartekatuta)															
urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztuairaila	Guztira urtean				
904.572973	4101.042	2482.795	820	2.953	7342.723	5732.271	210	1.853	517	1.435	823	892.181	471.627	781.869	19.099.584

Urte oso txar horretan —guztira **19,10 hm³** ur dago eskuragarri, emari ekologikoa kenduta—, eskasia arriskuaren atalaseak, Añarbe ibaiaren ekarpenen murrizketa zorrotza kontuan hartuta, eskasia adierazletzat hartu behar dira, eragindako udalerrien egungo eskaeren arabera.

HORNITZEKO URAREN ESKARIA

Lehen adierazi dugun bezala, Donostiako ur banaketako sareak kontsumitutako ur bolumena murriztu egin da 2008. urtetik: urtean 19.683.000 m³ kontsumituzetik urtean 14.100.000 m³ kontsumitzera.

Donostiako ur eskariaren murrizketa oso handia da, eta, beraz, lehorte koiunturalek eragindako eskasia egoerarako kontuan hartu beharreko agertokian Añarbe ibaiaren ekarpenak 5.500.000 m³ gutxiago izan beharko luke urtean, Añarbeko Uren Mankomunitateak aurreikusitako urte oso txar horretan baino.

Hauek dira agertoki bakoitzerako beharrezkoak diren **eskari murrizketak**:

- Aurrealerta egoera: % **10**
- Alerta egoera: % **20**
- Larrialdi egoera: % **30**

6.2.3.- Eskasia koiunturaletan sartzeko eta haietatik irteteko irizpideak

Añarbeko Urak SAK —hornidura sistema kudeatzen duen sozietateak— hileroko egiten du eskasia egoeren diagnostikoa datuei dagokien datatik hurrengo hilaren 15a baino lehen, bildutako ur bolumenaren adierazleak emandako informazioaren arabera.

Egoera batetik hurrengo egoera larriagora igartzeko (larrialdi egoera izan ezik), adierazleak bi hilabetez jarraian egon behar du egoera larriago horretan, edo hilabete bat hurrengo egoera larriagoan. Adierazleak dagokion atalasea gainditzen duen hilean deklaratu da larrialdi egoera, eta ez da aplikatu deklaratzeko bi hilabeteko iraupena, aplikatzekoak izan daitezkeen salbuespenezko neurriak hartzea ez atzeratzeko.

Egoera jakin batetik egoera arinago batera eboluzionatuz gero, aldaketa gertatzen den hilean bertan diagnostikatzen da.

Jarraian, agertokia aldatzeko irizpideak zehazten dira:

- **NORMALTASUN** egoeratik abiatuta:
 - Adierazlea **aurrealerta egoeran badago bi hilabetez jarraian, AURREALERTA** egoera deklaratu da.
 - **Kalkulatutako azken hilabetean adierazlea alertan badago, AURREALERTA** egoera deklaratu da.
 - Adierazlea **larrialdi egoeran badago kalkulatutako azken hilabetean, LARRIALDI** egoera deklaratu da.
 - Kalkulatutako azken hilabeteko adierazlearen beste edozein baliorekin —ez badago sartuta aurreko egoeretan—, **NORMALTASUN** egoera mantenduko da.
- **AURREALERTA** egoeratik abiatuta:
 - Adierazlea **alerta egoeran badago bi hilabetez jarraian, ALERTA** egoera deklaratu da.
 - Adierazlea **larrialdi egoeran badago kalkulatutako azken hilabetean, LARRIALDI** egoera deklaratu da.
 - Adierazlea **normaltasun egoeran badago kalkulatutako azken hilabetean, NORMALTASUN** egoera deklaratu da.
 - Kalkulatutako azken hilabeteko adierazlearen beste edozein baliorekin —ez badago sartuta aurreko egoeretan—, **AURREALERTA** egoera mantenduko da.
- **ALERTA** egoeratik abiatuta:
 - Adierazlea **larrialdi egoeran badago kalkulatutako azken hilabetean, LARRIALDI** egoera deklaratu da.
 - Adierazlea **alertan badago kalkulatutako azken hilabetean, ALERTA** egoera mantenduko da.
 - **Kalkulatutako azken hilabetean adierazlea aurrealertan badago, AURREALERTA** egoera deklaratu da.
 - Adierazlea **normaltasun egoeran badago kalkulatutako azken hilabetean, NORMALTASUN** egoera deklaratu da.

-
- **LARRIALDI egoeratik** abiatuta:
 - Kalkulatutako azken hilabetean **adierazlea larrialdi egoeratik ateratzen bada**, adierazlearen balioari dagokion egoera adieraziko da (**ALERTA, AURREALERTA** edo **NORMALTASUNA**).
 - Aurrekoa ez bada betetzen, **LARRIALDI** egoera mantenduko da.

7.- Eskasia koiunturaletan aurreikusitako jarduerak

Lehorte egoeragatiko Larrialdi Plan honetan Donostiako udal sarean eskasia koiunturalerako aurreikusi daitezkeen jarduketek beti izango dute beste baldintzatzaile bat: udal mankomunatu bakoitzaren eskariak baldintzatzen du, hain zuzen ere, udal mankomunatuon guztion goi hornidura.

Donostiako Udalak bere banaketa sarean ur galerak murrizteko egindako jarduera nagusiek eskaria % 16 murrizten lagundu dute, baina Añarbeko Mankomunitatearen (eta, beraz, hainbat udalerriren) ur horniduraren mende egoteak baldintzatu egiten du aurrealertako, alertako edo larrialdiko egoeretan egotea, eskasia arriskuko egoeretan egin daitezkeen erabakiak eta jarduketak hartzeko (batez ere eskariaren kudeaketarekin lotutako egoera guztietan).

Atal honetan, eskasia egoeretan egin daitezkeen jarduera nagusiak deskribatzen dira, AEASen gidak horri buruz egiten dituen gomendioetan oinarrituta.

Lehorterako edo eskasia koiunturalerako ezarritako fase bakoitzean aurreikusitako ekintza posibleak bildu behar dira (hau da, aurrealerta, alerta eta larrialdi egoeratarako), bakoitzaren izaeraren arabera modu independentean edo osagarrian aplikatuta. Jarduera mota hauek nabarmendu daitezke:

- Prebentziozkoak, hasteko baldintzak identifikatzekoak.
- Hornidura sistemak administratzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko jarduerak.
- Organikoak, instituzionalak, eta lege eta arau jarduerak.
- Azpiegituren eta baliabideen gaineko jarduketak.
- Eskariaren eta eragin sozialaren gaineko jarduerak.

Taula honetan, identifikatutako kategoria bakoitzaren barruko neurri nagusiak agertzen dira (jarduketa motak).

Kategorien taula. Neurriak ezaugarritzea (iturria: AEASen gida).

Kategorien taula: neurrien kategorizazioa	
KATEGORIA	NEURRI MOTA
Prebentziozkoak, hasteko baldintzak identifikatzekoak	Atalaseak zehaztea
	Erreserben egoerak aldian-aldian ebaluatzea sistematikoki
	Parametro hidrometeorologikoak monitorizatzea
	Uren kalitatea monitorizatzea
	Kontsumoa monitorizatzea
	Iturri alternatiboen inbentarioa
	Sistemak mantentzea eta prest jartzea
...	
Hornidura sistemak administratzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko jarduerak	Eragiketa prozedurak garatzea
	Sistemaren efizientzia hobetzea
	Iturri alternatiboak eguneratzea eta mantentzea
	Informazio sistemak eguneratzea eta mantentzea
...	
Organikoak, instituzionalak, eta lege eta arau jarduerak	Egoerak deklaratzeko, kudeaketarako batzordeak eta/edo lantaldeak sortzea
	Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak aktibatzea
	Elkarrizketarako edo murrizketarako akordioak eta organoak ezartzea
	Tarifak berrikustea
	Kontsumoaren mugei edo murrizketei buruzko dekretuak, bandoak eta ordenantzak
	Zaintza eta zehapenak
...	
Azpiegituren eta baliabideen gaineko jarduketak	Azpiegituren egoera egiaztatzea Horiek prest jartzea
	Ordezko iturriak zabaltzeko planak
	Instalazioen erabilgarritasuna ziurtatzea
	...
Eskariaren eta eragin sozialaren gaineko jarduerak	Fase bakoitzeko ekintzen plangintza
	Informazio eta sentsibilizazio kanpainak
	Ihesak eta iruzurra antzemateko kanpaina
	Sareko presioak kontrolatzea eta murriztea
	Ekonomia eta ingurumen ebaluazioa
	Hornidura etetea
...	

Jarraian, Donostiako Udalak eskasia koiunturaleko arrisku egoera bakoitzean garatu beharreko neurriak adierazten dira. Egoera horietan, Udalaren eskumeneko jarduerak, erakunde independente gisa, ez dute eraginik baliabideen edo jarduketan jasagarritasunean, baina bai banaketa sareko ur kontsumoaren eskarian.

Hurrengo koadroetan, gorriz adieraziko ditugu Donostiako Udalak eszenatoki bakoitzean uraren kontsumoa murrizteko eta agertoki bakoitzean % 10, % 20 eta % 30eko murrizketa helburuak lortzeko egin asmo dituen zuzeneko jarduerak.

EGOERA:	AURREALERTA	ESKARIA MURRIZTEKO HELBURUA:		% 10
Prebentziozkoak, hasteko baldintzak identifikatzekoak	Hornidura sistemak administratzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko jarduerak	Organikoak, instituzionalak, eta lege eta arau jarduerak	Azpiegituren eta baliabideen gaineko jarduketak	Eragin sozialekoak eta eskariaren gaineko jarduerak
Txostenak egitea.	Adierazleak identifikatzea.	Lehorte Batzordea eratzea.	Ur kontsumoaren jarraipen zehatza eta galerak sektoreka neurtzea sarean.	Herritarrari komunikatzeko bideak ezartzea.
Ur kontsumoa murrizteko jarduerak		Ureztatzeko, iturrietako, baldekatzeko eta abarretako udal kontsumoak murriztea. Beharrezko giza baliabideen eta baliabide ekonomikoaren aktibazioa prestatzea.	Barneko eta kanpoko langileak baliatzea ihesak konpontzeko jardueretan.	Erabiltzaileen artean ura zentzuz erabiltzeari buruzko kontzientziario kanpaina. Eskariaren bilakaera zaintzea.
Lehorte Plana eguneratzea eta hurrengo faserako prestatzea	Inplikazioa duten erakundeak eta entitateak identifikatzea. Eskubideen transferentziak prestatzea (kanpoko baliabideak).	Añarbarekin koordinatzea mankomunitate osoa hornitzearekin loturiko jarduerak.	Banaketa sarearen funtzionamendu egokia aztertzea, alerta kasuetan ur kontsumoak murrizteko.	Ur kontsumoaren balizko murrizketen komunikazio plana prestatzea. Borondatezko aurrezki kanpainan eragitea.

EGOERA:	ALERTA	ESKARIA MURRIZTEKO HELBURUA:		% 20
Prebentziozkoak, hasteko baldintzak identifikatzekoak	Hornidura sistemak administratzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko jarduerak	Organikoak, instituzionalak, eta lege eta arau jarduerak	Azpiegituren eta baliabideen gaineko jarduketak	Eragin sozialekoak eta eskariaren gaineko jarduerak
Lehorte planaren jarraipena eta eguneratzea	Kontsumoak borondatez murrizteko pertsuasio neurriak areagotzea	Lehorte adierazpen ofiziala – Gehiegizko kontsumoagatikozehapen tarifak aldatzeko balizko dekretuak, ordenantza bandoak eta bestelakoak prestatzea.	Industria kontsumoaren murrizketak, ordutegiak zehaztuta. Kanpoko baliabideak areagotzea.	Erabiltzaileari egoera jakin bategatik ezarritako zehapen neurriak jakinaraztea. Aurrezteko kanpainak sustatzea.
Ur kontsumoa murrizteko jarduerak	Ur galera errealean murrizketa	DigiUraSSn ezarritako abonatuenteleirakurketa sistema erabiltzea, abonatuenteleirakurketa kontrolatzeko. Erabiltzaileari zehapenak jakinaraztea.	Teleirakurketarekin eta sektORIZAZIOAREKIN ezarritako abonatuenteleirakurketa kontsumoa aztertzea, erabiltzaileetan, harguneetan edo banaketa sarean ur galerak antzemateko. Giza baliabideak eta baliabide materialak areagotzea.	Gauerako ur kontsumoaren murrizketak ezartzea, herritar guztientzako presioak eta zigorrak erregulatzeko sistemaren bidez.
Hurrengo larrialdi faserako sarrera prestatzea	Baliabideak bilatzea eta larrialdi instalazioak prestatzea	Eskubide trukea prestatzea. Biztanleengan izango duen inpaktu ekonomikoaren azterketa. Osasun publikoko sistemen hornidura ziurtatzea.	Ur murrizketak areagotzeko etorkizuneko egoerak aztertzea eta definitzea.	Tarifa aldaketak eta kontsumitzaile moten gutxitze murrizketak aurreikustea. ... bermatzea.

EGOERA:	LARRIALDIA	ESKARIA MURRIZTEKO HELBURUA:		% 30
Prebentziozkoak, hasteko baldintzak identifikatzekoak	Hornidura sistemak administratzeko, kudeatzeko eta erabiltzeko jarduerak	Organikoak, instituzionalak, eta lege eta arau jarduerak	Azpiegituren eta baliabideen gaineko jarduketak	Eragin sozialekoak eta eskariaren gaineko jarduerak
Ekonomian, ingurumenean eta gizartean izango duen inpaktua aztertzea	Ur hornidura oinarriko kantitateetan bermatzea. Arroen erakundeekin, inguruko udalerriekin eta abarrek koordinatzea, ura lekualdatzeko edo garraiatzeko aukerarekin.	Larrialdi adierazpen ofiziala. Muturreko murrizketak jakinaraztea eta ura garraio bidez lortzea. Ur gehiegi erabiltzearen edo debekatutako ordutegietan erabiltzearen ondoriozko zehapenak areagotzea.	Añarbeko urtegiko bolumenaren baliabideen eta balizko ur iturri guztien erabilera (Artikutza). Teleirakurketa eta sektorizazio sistema babestea murrizketa uneetan, ur kontsumoak detektatzeko.	Aurreikusitako neurrien inpaktu sozial eta ekonomikoak ebaluatzea eta erabiltzaileari jakinaraztea. Zehapenak areagotu direla jakinaraztea eta biztanleengan dituzten ondorioak adieraztea.
Ur kontsumoa murrizteko jarduerak	Lurpeko urak biltzeko sistema posible guztietan inbertitzea, hornidura sisteman txertatzeko.	Eskura jarritako giza baliabideak aztertzea. Beste erakunde batzuekin koordinatzea eta baliabide ekonomiko eta pertsonalak erabiltzea arroko edo inguruko arroetako ura lortzeko.	Baliabide gutxi denean ura tratatzeko sistema lokalak sartzeko. Ur kontsumoaren ordutegia murriztea, osasun publikoko instalazioetan eta osasun larrialdietako instalazioetan izan ezik. Beharrezko ordutegian presioa erregulatzeko sistema kontrolatzea.	Osasun sistemaren ur hornidura bermatzea eta biztanleei neurriak eta zehapenak jakinaraztea.
Beste azterketa eta analisi neurri batzuk	Baliabideak etengabe zaintzea eta sistemaren beste kudeaketa eta eragiketa neurri batzuk gauzatzea	Beste neurri organiko, instituzional, legezko eta arauemaile batzuk prestatzea, larrialdi egoera denbora luzez geratzen bada ere.	Ur kontsumoa etengabe zaintzea eta sareko presioa murriztea kontsumo orduetan.	Tarifa aldaketak, abonatu bakoitzeko gutxienezko kontsumo batetik aurrerako zehapenak sartzeko.

Planean aurreikusitako jardueren artean, Donostiako Udalak eskaria kudeatzera bideratutakoetan du protagonismorik handiena.

Uraren zikloa digitalizatzeko Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoari aurkeztutako proiektuan (DigiUraSS), Donostiako Udalak aurreikusi du etorkizuneko egoerei hainbat tresnarekin aurre egitea, borondatezko aurrezkoa eta uraren efizientzia lehenetsiz:

- Banakako kontsumoak kontrolatzeko sentsore digitalak ezartzea (teleirakurketa). Horri esker, edozein gorabehera azkarrago eta modu eraginkorragoan aurkitu ahal izango da, bai banaketa sareetan (sektorizazioarekin batera – Balantze Hidrikoa), bai instalazio partikularretan (barne hartuneetako ihesak), eta jakinaren gainean ipiniko dira erabiltzaileak.
- Gehiegizko edo desegokitzat jotako kontsumoak (xahutzea) saihesteko edo murrizteko tarifa politika progresiboak ezartzea.
- Uraren erabilerari buruzko kontzientziazio kanpainak.
- Lehorte egoerarako, Donostiako Udalak sistema telekontrolatu bat ezartzea aurreikusi du, ura banatzeko sarean presioak murrizteko eta sarea oso presio baxuko murrizketa aldietan mantentzeko, eta, hartara, azpiegituren bizitza erabilgarria ziurtatzeko eta uraren kontsumoa eragozteko.

Alerta kasuetan, unean-unean ura kantitate eta kalitate egokian emateko aukera ematen duten baliabide alternatiboak kontuan hartzeaz gainera, Donostiako Udalaren helburua da ur erabilera murrizten duten neurriak saihestea ahal den neurrian, baina gaur egun duen errendimenduak —ur galerak % 10 baino ez dira— ez dio uzten maniobra handirik egiten galeren murrizketan; beraz, murrizketak laster hasiko dira alerta egoerak aurreikusiz gero.

Hala eta guztiz ere, Añarbeko Uren Mankomunitatearen hornidura sistema orokorreko erreserben edo baliabidearen erabilgarritasunaren egoera irits daiteke eskasia mailara (alerta). Horren arabera, komeni da uraren erabilera murrizteko neurri batzuk hartzea, biztanleei ur hornidura bermatzeko. Neurri horiek

salbuespenezkotzat jo beharko dira.

Hori dela eta, Donostiako Udalak aurreikusi du ureztatze, iturri, baldekatze eta abarretarako kontsumoak ezabatzea **aurrealerta** egoeretan, eta, horretaz gainera, ihesen ondoriozko ur galerak murrizteko sistema indartzea, abonatu bakoitzaren ur kontsumoen ordutegi kontrola eginez eta sektorizazioa monitorizatzeko sistemarekin koordinatuz. Izan ere, sistema horrek ur ihesik txikiena ere adieraziko dio.

Kontsumoak murrizteko maniobra marjina % 10 ingurukoa den egoera horren aurrean, eta koadroan adierazten den bezala, Donostiako Udalak arteria sare osoan teleagindutako presio murriztaileak instalatzea aurreikusi du. Gailu horiek sarean kontsumoa eragotziko duen presio murrizketa bat programatzeko instalatuko dira (hodiak urarekin mantentzea, baina ura kontsumitzeko behar besteko presiorik gabe). Horri esker, hodiak urarekin mantenduko dira, eta ez dira gertatuko maiz gertatzen diren hausturak hodietan, airez beteta edukitzearen ondorioz —murrizketa baten ondoren urari jaregin ostean gertatu ohi den moduan—.

Neurri horren helburua da sareko kontsumoa % 90eraino gutxitzea murrizketa ordutegietan, baina erabiltzaileentzako zerbitzua berrezartzean hausturak izateko arriskua saihestuz.

Donostiako egungo sarearen sektorizazioak aukera ematen du sarerako sistema hori osorik ezartzeko, eta, horretarako, presioa murrizteko 30 balbula telekontrolatu ezarri behar dira. Balbula horiek online aktiba daitezke larrialdi egoeretan, eta presioa erregulatzen dute, harik eta erregulazio horren mendeko sarea 1 kg/cm²-raino jaitsiz (1 bar).

Donostiako sarearen sektorizazioa hornidura independentetan banatzen da, zeinak sareko deposituen mende baitaude: Matia, Oriabenta, Amara, Mons, Putzueta, Bidebieta, Martutene, Alaberga, Abrin eta Elordin. Depositu bakoitzaren mendeko sarean, sektoreak diseinatu dira, eta diametro handiko hodi batek edo batzuek ematen diete ura sektoreei —sektorearen kontsumoaren kontroletik kanpo egonda—.

Lehen mailako eroanbide horiek abonaturik konektatuta ez edukitzeko diseinatu dira bereziki, abonatuaren kontsumoen balantzea % 95ean egon dadin sareko sektoreetan.

Jarraian, Donostiako Udalak kontsumoari ezarritako murrizketak areagotzeko egin ditzakeen eta agertoki bakoitzean har litezkeen jarduerak azaltzen dira.

EGOERA:	AURREALERTA		
Lorategiak eta berdeguneak ureztatzea	Iturriak, urmaleak eta ura baliatzen duten elementu estetikoak	Baldekatzeak, kale ureztatzeak eta antzekoak	Igerilekuak betetzea
<p>Gau parteko kontsumoak mugatzea. Partikularrak eta instituzionalak</p> <p>Nahitaez ezartzea sentsoare automatikoak eta ordutegi kontrolatua dituzten aspertsio sistemak.</p> <p>Erabilera horietarako hileko ur hornidura mugatzea.</p> <p>Arrisku partikularrak astean bi egunera mugatzea.</p>	<p>Horrelako kontsumoak murriztea, animalien bizitzari eragiten diotenean izan ezik. Partikularrak eta pribatuak</p>	<p>Gau parteko kontsumoak mugatzea. Partikularrak eta instituzionalak</p> <p>Kale garbiketako kontsumoa ohikoaren erdira murriztea, baita gaueko ordutegian ere.</p> <p>Udal zerbitzuek bereziki kaltetutako eremuetara mugatu behar dituzte garbiketako jarduerak.</p>	<p>Erabat murriztea igerilekuak betetzeko erabilerak, baita igerilekuak mantentzeko sistemetan ere.</p> <p>Ikastetxeetako udal igerilekuetako kontsumoaren kontrol zehatza.</p> <p>Igerilekuak betetzeko murrizketa zentro publiko eta pribatuetan.</p>
Ibilgailuak, kaleak eta abar garbitzea	Abonatuaren kontsumoak zaintzea eta kontrolatzea	Ihesengatiko galerak murriztea	Sareko presioa murriztea ordutegi jakinetan
<p>Uraren birzirkulazioa bermatzen duten zentro berezietan bakarrik egongo da baimenduta.</p> <p>Animalien garraioaren edo elikaduraren osasungarritasuna mantentzea izango da salbuespena.</p>	<p>Abonatu eta erabiltzaileen kontsumo estatistikak eraztea, kontagailuak urrunetik irakurtzeko sistemaren bidez.</p> <p>Gehiegizko eta araututako balioen aurrean, kontsumoa murrizteko oharra eta betebeharra, zehapen aukerarekin.</p>	<p>Ur kontsumoaren jarraipen zehatza eta galerak sektoreka neurtzea sarean.</p> <p>Barneko eta kanpoko langileak baliatzea ihesak konpontzeko jardueretan.</p>	<p>Sareko presioa arteria sareko presioa murrizteko sistemaren bidez erregulatzea, gaueko ordutegian eta udalerriko eremu jakin batzuetan murrizketa mantenduz.</p> <p>Donostian gehiegizko presioa duten eremuak ageri dira, eta horrek presioa murriztea ahalbidetzen du, kontsumoa murriztu gabe.</p>

EGOERA:	ALERTA		
Lorategiak eta berdeguneak ureztatzea	Iturriak, urmaleak eta ura baliatzen duten elementu estetikoak	Baldekatzeak, kale ureztatzeak eta antzekoak	Igerilekuak betetzea
<p>Kontsumoak erabat murriztea. Partikularrak eta instituzionalak</p> <p>Kontsumo mota hori duten erabiltzaileentzako zehapenak.</p>	<p>Ura kontsumitzeko elementu horien erabateko murrizketa, animalien bizitzari eragiten diotenean izan ezik. Partikularrak eta pribatuak</p>	<p>Gau parteko kontsumoak mugatzea. Partikularrak eta instituzionalak</p> <p>Kale garbiketako kontsumoa ohikoaren erdira murriztea, baita gaueko ordutegian ere.</p> <p>Udal zerbitzuek bereziki kaltetutako eremuetara mugatu behar dituzte garbiketako jarduerak.</p>	<p>Erabat murriztea igerilekuak betetzeko erabilerak, baita igerilekuak mantentzeko sistemetan ere.</p> <p>Ikastetxeetako udal igerilekuetako kontsumoaren kontrol zehatza.</p> <p>Igerilekuak betetzeko murrizketa zentro publiko eta pribatuetan.</p>

Ibilgailuak, kaleak eta abar garbitzea	Abonatuaren kontsumoak zaintzea eta kontrolatzea	Ihesengatiko galerak murriztea	Sareko presioa murriztea ordutegi jakinetan
<p>Uraren birzirkulazioa bermatzen duten zentro berezietan bakarrik egongo da baimenduta.</p> <p>Animalien garraioaren edo elikaduraren osasungarritasuna mantentzea izango da salbuespena.</p>	<p>Abonatu eta erabiltzaileen kontsumo estatistikak eraztea, kontagailuak urrunetik irakurtzeko sistemaren bidez.</p> <p>Gehiegizko eta araututako balioen aurrean, kontsumoa murrizteko oharra eta betebeharra, zehapen aukerarekin.</p>	<p>Ur kontsumoaren jarraipen zehatza eta galerak sektoreka neurtzea sarean.</p> <p>Barneko eta kanpoko langileak baliatzea ihesak konpontzeko jardueretan.</p> <p>Baliabide material eta pertsonalez hornitzea, detekzio eta konponketa horiek ez dezaten iraun egun bat baino gehiago.</p>	<p>Presioa ahalik eta gehien erregulatzea, guztia ere bermatzeko ez direla husten sareko hodiak 23:00etatik 05:00etara arteria sareko presioa murrizteko sistemaren bidez.</p>

EGOERA:		LARRIALDIA	
Lorategiak eta berdeguneak ureztatzea	Iturriak, urmaleak eta ura baliatzen duten elementu estetikoak	Baldekatzeak, kale ureztatzeak eta antzekoak	Igerilekuak betetzea
<p>Kontsumoak erabat murriztea. Partikularrak eta instituzionalak</p> <p>Zehapen astunak ezartzea kontsumo mota hori duten erabiltzaileei.</p>	<p>Ura kontsumitzeko elementu horien erabateko murrizketa, animalien bizitzari eragiten diotenean izan ezik.</p> <p>Partikularrak eta pribatuak</p>	<p>Udal garbiketa zerbitzuen eta zerbitzu partikularren murrizketa erabatekoa.</p> <p>Udal zerbitzuek bereziki kaltetutako eremuetara mugatu behar dituzte garbiketa jarduerak.</p>	<p>Erabat murriztea igerilekuak betetzeko erabilerak, baita igerilekuak mantentzeko sistemetan ere.</p> <p>Igerilekuak betetzeko murrizketa zentro publiko eta pribatuetan.</p>
Ibilgailuak, kaleak eta abar garbitzea	Abonatuaren kontsumoak zaintzea eta kontrolatzea	Ihesengatiko galerak murriztea	Sareko presioa murriztea ordutegi jakinetan
<p>Animalien garraioaren edo elikaduraren osasungarritasuna mantentzea izango da salbuespena.</p>	<p>Abonatu eta erabiltzaileen kontsumo estatistikak eraztea, kontagailuak urrunetik irakurtzeko sistemaren bidez.</p> <p>Abonatuaren hornidura murriztea zehapenagatik.</p> <p>Zehapen astuna murrizketa ordutegietan kontsumitzeagatik.</p>	<p>Ur kontsumoaren jarraipen zehatza eta galerak sektoreka neurtzea sarean, hartuneetan eta abonatueta.</p> <p>Barneko eta kanpoko langileak baliatzea ihesak konpontzeko jardueretan.</p> <p>Baliabide material eta pertsonalez hornitzea, detekzio eta konponketa horiek ez dezaten iraun egun bat baino gehiago.</p>	<p>Presioa ahalik eta gehien erregulatzea hodiko arteria sareko presioa murrizteko sistemaren bidez, uraren kontsumoa behar den atalaseraino murrizteko, bermatzeko ez direla husten sare osoko hodiak.</p> <p>Kontsumo jarduerak zehatzeko zaintza lanak egitea murrizketak dituzten ordutegietan.</p>

Salbuespen gisa eta herritarrei hornidura bermatzeko, ur erabilera murrizteko neurriak hartzeko erabakia hartu ondoren —baita erabilera jakin batzuk debekatzearen bidez ere—, Donostiako Udala arduratuko da hartu beharreko murrizketa edo debeku neurriak garatzeaz —adibidez, tokiko ordenantzak edo dagozkion legezko figurak onetsita—, eta hura arduratuko da, orobat, hartu beharreko murrizketa eta debeku neurriak herritarrei jakinarazteaz, baita kasuan kasuko arau hausteen eta zehapenen berri emateaz ere.

Batetik, lehorte egoeretako Larrialdi Planaren jarraipena egiteko, eta, bestetik, Añarbeko Urak SAk —goi hornidurako sistema kudeatzeko sozietate publikoak— eta udal mankomunatu bakoitzak egin beharreko azterketa eta hartu beharreko neurriak proposatzeko, **lehorte batzorde** hauek sortuko dira:

- **KUDEAKETA BATZORDE** tekniko bat, Añarbeko Urak SAko teknikariek eta udalerrri mankomunatuetakoko udal arduradun teknikoek osatua. Helburu hauek izango ditu: lehorte arriskuaren egoera aztertzea, eskasia koiunturalaren arrisku egoerak deklaratzeko proposamena egitea, hartu beharreko neurriak proposatzea eta, kasuak hala eskatzen duenean, egin beharreko azterketak proposatzea.
- **IKUSKAPEN BATZORDE** bat, Añarbeko Uren Mankomunitateko udaletako ordezkari politikoez osatua. Batzorde horren helburua izango da eskasia koiunturaleko arrisku egoeren adierazpena eta lehorte edo eskasia egoera arintzeko hartu beharreko neurriak onestea. Batzorde horrek Kudeaketa Batzordearen aholkularitza izango du.

8.- Planaren kudeaketa eta jarraipen erakundeak

Donostiako Udalaren Lehorte Egoeretakako Larrialdi Planak kontsumoa murrizteko eskumena bakarrik dauka, eta ez ur baliabideen erabilgarritasunari lotutakoa.

Beharrezkoa da mankomunitatearekin koordinaturik jardutea, eta, horren ondorioz, plana argitaratzea udalerrri mankomunatuetakoa baliabideen kudeaketan eta ur eskarian inplikaturako eragile guztien mende ere badago.

Donostiako Udalak Añarbeko Uren Mankomunitatearen **barneko** Lehorte Plana jakinaraziko du, helburu gisa harturik zehatz-mehatz azaltzea eskuragarri dauden eta etorkizunean izango diren kontsumo adierazleei eta eskasia egoera bakoitzean hartu beharreko neurriei buruzko guztia.

Kudeaketa Batzordea eta Ikuskapen Batzordea sortzea funtsezkoa da mankomunitateko kide guztientzat; izan ere, udalerrri bakoitzean kontsumoa kontrolatzeko helburuak ezarri behar dira, eta aurretiazko neurriak hartu behar dira, lehorte egoeran baliabideak optimizatzeko kontrolez jardun ahal izateko.

Batzorde horrek udalerrrien eta mankomunitatearen beraren helburuak eta funtzionamendua adierazi eta adostu behar ditu, bai eta Larrialdi Plan bateratu bat onetsi ere.

Batetik, lehorte egoeretakako Larrialdi Planaren jarraipena egiteko, eta, bestetik, Añarbeko Urak SAK —goi hornidurako sistema kudeatzeko sozietate publikoak— eta udal mankomunatu bakoitzak egin beharreko azterketa eta hartu beharreko neurriak proposatzeko, **lehorte batzorde** hauek sortuko dira:

- **KUDEAKETA BATZORDE** tekniko bat, Añarbeko Urak SAKo teknikariek eta udalerrri mankomunatuetakoa udal arduradun teknikoek osatua. Helburu hauek izango ditu: lehorte arriskuaren egoera aztertzea, eskasia koiunturalaren arrisku egoerak deklaratzeko proposamena egitea, hartu beharreko neurriak proposatzea eta, kasuak hala eskatzen duenean, egin beharreko azterketak proposatzea. Bertan zehaztuko dira, orobat, udalerrri bakoitzak bere ur kontsumoa kontrolatu ahal izateko eta gainerako udalerrriei larrialdi egoeretan kontrol bermeak eskaintzeko egin behar dituen jarduerak.
- **IKUSKAPEN BATZORDE** bat, Añarbeko Uren Mankomunitateko udaletako ordezkari politikoez osatua. Batzorde horren helburua izango da eskasia koiunturaleko arrisku egoeren adierazpena eta lehorte edo eskasia egoera arintzeko hartu beharreko neurriak onestea. Batzorde horrek Kudeaketa Batzordearen aholkularitza izango du.

9.- Planaren jarraipena egitea, berrikustea eta eguneratzea

Larrialdi Plan hau onetsi ondoren, honela egingo da haren jarraipena:

- Hilero-hilero, Donostiako Udaleko uren alorreko talde teknikoak, Añarbeko Uren Mankomunitatetik jasotako informazioarekin, hornidura sistemaren egoera ebaluatuko du, lehorte edo eskasia koiunturalaren arriskuari dagokionez (normaltasuna, aurrealerta, alerta edo larrialdia), Añarbeko Alerta egoeretan eta balizko lehortetan jarduteko Plan Berezian aurreikusitako adierazlearen balioaren arabera.
- Normaltasuna ez den beste egoera bat antzemanaz gero, berehala elkartuko da Kudeaketa Batzordea, eta dagokion egoera deklaratzeko proposatuko du. Proposamen horrekin batera, egoeraren eta epe labur edo ertainera aurreikus daitekeen bilakaeraren ebaluazio teknikoa egingo da, bai eta hartu beharreko neurrien proposamena ere. Hori guztia Ikuskapen Batzordeari helaraziko zaio, eta hark erabakiko du deklaratuko beharreko egoera, bai eta hartu beharreko balizko neurriak ere. Ondoren, jakinaren gainean ipiniko ditu Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Añarbeko Uren Mankomunitateko zuzendaritza organoak.
- Lehorte arriskuren bat edo eskasia koiunturalen bat (aurrealerta, alerta edo larrialdia) deklaratzeko denetik normaltasun egoerara itzuli arte, hilero elkartuko da Kudeaketa Batzordea, eta egoeraren berri emango die Ikuskapen Batzordeari eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari. Ikuskapen Batzordea egoera aldatu behar den edo neurri gehiago hartu behar diren bakoitzean elkartuko da, edo Kudeaketa Batzordeak hala eskatzen duenean. Añarbeko Urak SAK hartuko ditu zuzenean urtegiaren edo goi hornidura sistemako gainerako azpiegituren ustiapenari buruzko erabakiak, betiere alde aurretik adostuta dauden neurriak betez eta Ikuskapen Batzordeak onetsi beharrik gabe.
- Lehorte arriskua edo eskasia koiunturala amaitu ondoren (betiere aurrealerta, alerta edo larrialdia deklaratu bada), Kudeaketa Batzordeak gertakaria deskribatzen duen txosten tekniko bat egingo du. Txosten horretan, Larrialdi Planaren funtzionamendua eta hartutako neurrien eraginkortasuna ebaluatuko ditu, baita etorkizuneko gertaerentarako gomendioak ere —edo, kasuak hala eskatzen badu, Larrialdi Plana berrikusi behar denean aintzat hartu beharreko auziak—. Txosten hori Ikuskapen Batzordeari helaraziko zaio, jakinaren gainean ipintzeko eta, kasuaren arabera, onesteko, bai eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari ere.
- Kudeaketa Batzordea gutxienez bi urtean behin elkartuko da, Larrialdi Plana urtegiaren ustiapenaren errealitatera egokitzen den, plan hori zenbateraino betetzen den eta plana berrikustea gomendatzen duen arrazoirik ba ote dagoen ebaluatzeko.


- Ikuskapen Batzordea gutxienez lau urtean behin elkartuko da, Kudeaketa Batzordeak Planaren jarraipenari buruzko informazioa emateko eta, kasuaren arabera, Larrialdi Planaren berrikuspena idaztea onesteko.

Plana berrikusteari eta eguneratzeari dagokionez, kontuan hartu behar da Añarbeko Uren Mankomunitatearen Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren barruan dagoela, estatuaren eskumenen esparruan. Plan hori Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egin da, eta azaroaren 28ko TEC/1399/2018 Aginduaren bidez onetsi zen plan horren 2018ko ekaineko berrikuspena.

Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Berezia da Larrialdi Plan honetarako erreferentzia esparru orokorra. Hori horrela izanik, plan honen berrikuspenak eta eguneratzeak bat etorri behar du harekin, edo, kasu guztietan ere, Larrialdi Plan honen oinarri diren funtsezko elementu eta hipotesietan aldaketa esanguratsu bat gertatu dela detektatzen bada helduko zaio (hala nola baliabideen eskuragarritasuna, hornidura uraren zuzkidurak eta kontsumoak, hornidura sistemaren azpiegiturretan izaniko aldaketak, planari eragin diezaioketen araudian izaniko aldaketak, eta abar).

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, **Larrialdi Plana gutxienez sei urtean behin berrikusiko da**, hau da, Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren aurreikusitako gehieneko berrikuspen aldiaren barruan. Baina **lehenago ere berrikusi ahal izango da, baldin eta Alerta egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko Plan Bereziaren aldaketaren bat izan bada edo planaren jarraipena egitean ikusten bada beharrezkoa dela eguneratzea**.

Donostia, 2023ko martxoa



Planaren erredaktorea
José Luis Badiola Díez

Planaren zuzentzailea
Fernando Pérez Rodríguez